ttipi ttapa

419

2006ko martxoaren 30a • XXVI. urtea



**Industrialde berriak eztabaida Narbarten** 04

Bizilagun talde batek Narbarten jartzearen kontrako sinadurak biltzen dituen bitartean, Andres Etxenike Bertizaranako alkateak ona bertzerik ez duela ekarriko dio.



**Paxakako txapela Iruritan gelditu da** 29

Ballarena, Urtasun eta Etxenikek irabazi dute Baztan-Bidasoako VII. Paxaka txapelketa. Finalean 9-7 irabazi zieten Urrutia anaiei eta Elizaintzin-i.

03 LESAKAKO TANTIRUMAIRU DANTZA TALDEA

# 25. urteurreneko ospakizunetan



Lasao
egurrezko altzaria



EUSKAL HERRIAN ESTIMATZEN DEN ALTZARIA

www.lasao.com

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) Tel. 943 15 11 82
e-mail: informacion@lasao.com

## DATUAK...

- **Lesakako Tantirumairu dantza taldeak 25 urte bete ditu aurten. Mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.**

- **Apirilaren 9an Tantirudantza antolatu dute, Lasarte, Faltzes eta Errenteriako Ereintza taldeekin eta apirileko lehen astean, 25 urteotako historia biltzen duen argazki erakusketa zabalduko da.**

- **Aspaldiko urteotan, Garbiñe Sarasola da dantza taldeko arduraduna, Alicia Ponbarrekin batera.**



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
**Garbiñe SARASOLA** *Tantirumairu dantza taldeko arduraduna*

# «Betiko dantza pausuetan oinarrituz koreografia berriak sortu ditugu»

**Aitor AROTZENA**

**Tantirumairu dantza taldearen mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzue…**

Bortz ekitaldi nagusi antolatu ditugu: baserritar jantzien erakusketa egin genuen eta horrekin batera Ramon Garciaren solasaldia antolatu genuen. Patxi Perezekin dantza ikastaroa egin dugu bi larunbatez plazan. Aitzinera begira, urtero antolatzen dugun Tantirudantza izanen da apirilaren 9an eta apiril hasieran, astebetez, taldearen historia biltzen duen argazki erakusketa eginen dugu. Azkenekoa, uztailaren 1ean antolatu dugun bazkaria izanen da eta uztailaren 6an, Tantirumairu dantza taldearen saioa.

**Nola laburbilduko zenuke Tantirumairu dantza taldearen historia?**

Beraien seme-alabek Euskal Herriko dantzak ikastea nahi zuten Ikastolako guraso talde baten ekimenez sortu zen. Taldea handitzen joan zen eta momentu batean, ikastolaren barrenean lan eta denbora aunitz eramaten zuela eta ekonomikoki ere bere zama bazuela ikusi zen. Ekintza horrekin bukatu behar zela erabaki eta

> **«Nahi baino guttiago mugitzen gara, baina Bretainian, Galizan, Tarragonan, Burgosen eta bertze zenbait lekuetan izan gara»**

orduan, inguruan geuden pertsona batzuek guk segitzea erabaki genuen, ikastolatik kanpoko ekintza bezala. Izena mantendu genuen eta ikastolako gelak erabiltzen segitu genuen entsaioetarako, baina ikastolatik aparte. Orduan erabaki zen ttikiekin ez ezik, handiagoekin ere hastea, pena baitzen zortzigarren mailara akautzerakoan dantzak utzi behar izatea. Taldean ibilitako jendeari deitu zitzaion eta batzuk berriz hasi ziren dantzan. Funtzionamendua aldatu zen orduan: arduradunak behar ziren, kanpoko irakasleak ekarri ziren, dantza berriak ikasi, arropa berria egiteko jostunak bilatu, modistoak ezagutu…

**Garai batean, Irain dantza taldea ere bazen herrian… Orain haur guziak Tantirumairun biltzen dira?**

Horrelako herri ttiki batean ez zuen inongo zentzurik. Umeak elkarrekin joaten ziren solfeora, futbolera, ekintza guzietara, dantzara izan ezik. Orduan, talde bakarra sortzea erabaki genuen. Bildu, pixko bat hitzegin eta erabaki zen Tantirumairu bezala segituko zela, nahiz eta taldera edozein ume etorri, bai ikastolakoa, bai eskolakoa, baita herritik kanpokoa ere.

**Zenbat dantzari dituzue taldean?**

Kopurua urtero berdintsu mantentzen da, ehun inguruan: aurten 112 ditugu. Bortz urtetan ematen zaie orri bat ume guziei, dantza taldeari buruzko azalpenak emanez eta izen emateko orriarekin. Beraz, bortz urtetan hasi eta nahi duten arte segitzen dute, zaharrenak 33-34 urte izanen ditu.

**Helduen taldean kalitate-saltoa eman duzuela ere somatzen da…**

Hori jendeak erabakiko du. Dantza talde batean normalki zortzi mutil eta zortzi neska daude, baina gurean ez da posible, mutilak falta direlakoz. Gehienak neskak dira eta bizpahiru mutil. Beraz, dantza modu tradizionalak egitea ezinezkoa denez, Edu Muruamendiaraz irakaslearekin, dantza pausuetan oinarritutako koreografia ezberdinak sortu eta ikasten dituzte.




Irudia: Juani MENDIBURU

**Conservas Martiko enpresak aurkeztu duen proiektuan, industrialde berrira sartzeko errotonda berria egitea aurrikusi da. Kirol eremu berria, errepidearen bertzaldean geldituko litzateke.**

ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEA APIRILAREN 1EAN AKITUKO DA

# Narbarteko industrialde proiektuaren kontrako sinadurak biltzen ari dira

**Goitiko irudian, Martiko enpresak Narbarten egin gogo duen industrialde proiektua ageri da. Gasolindegia, jatetxea, lantegia eta biltegiak inguru horretan jarri ahal izateko, Bertizaranako Udalak arauak aldatu behar izan ditu, etorkizunean kirol eremua egiteko lekua baitzen berez lur-sail hori. Urtarrilaren 27ko udal batzarrean ahobatez onartu zen arauen aldaketa hau eta kirol eremua Narbartera doan errepidearen bertze aldera pasatu da. Proiektuari alegazioak aurkezteko epea apirilaren 1ean akituko da eta seguruenik bat baino gehiago aurkeztuko da Bertizanako Herriko Etxean. Izan ere, bizilagun talde bat proiektuaren kontrako sinadurak biltzen ari da.**

Xan HARRIAGUE

Sinadura bilketa egiten ari direnek garbi utzi nahi dute Bertizaranara industria ekartzearen aldekoak direla eta bereziki arduratzen dituen gaia dela. Halere, beraien ustez industrialde berria Bertizko Natur Parketik sobera hurbil dago: *«Bertizko Parke Naturaletik arras hurbil dagoen proiektu batez ari gara, eta hura da Nafarroako gune turistiko nagusietako bat. Are gehiago, aipatu Parkearen inguruan egin diren inbertsio eta sustapenei esker, gero eta gehiago dira gure eremura etortzen diren bisitariak; eta hau guzia, jakina, hagitz onuragarria da, modu batean edo bertzean, turismoari loturik dauden pertsona eta erakundeendako: merkatariak, landa etxeetako jabeak, jatetxeak, hotelak, eta abar. Beraz, ez dugu konprenitzen ahal Udalak eta Bertizko Partzuergoko Presidentea den Alkateak aho batez onartzea bertze industrialde baten ezarpena»*.

Sinadura biltzaileen ustez, egokiagoa litzateke proiektua Legasako industrialdean ezartzea: *«Ez litzateke aunitzez logikoagoa aurrez prestatutako jakien lantegi hori haranean dagoen industrialdera eramatea? Legasako Arcelor-enaz ari gara, hain zuzen; aipaturiko udal planak ere hala-*

*xe jasotzen du. Erabilpen industrialerako zuzendua den lur sail honek 110.000 metro koadro ditu goiti-beheiti; baina horretaz gain, ondoan 100.000 metro koadro inguruko landa-lurzorua dago. Beraz, 200.000 metro koadro inguruko lur saila dago probesten ahal dena»*.

Udalak kirol eremua hurbil dagoen bertze lursail batera eraman nahi du, baina Bidasoa ibaitik urrun; beraz, ur-kirolak egiteko aukera bertan behera gelditzen dela uste dute bizilagunek: *«Deigarri gertatzen da proiektu horren azterketarako izendatu dituzten Patxi Chocarro San Martin-ek eta Maria Urmeneta Fernandezek egindakoa. Izan ere, erraten dute udal planaren gainean eginen den berrazterketak bertzelakotu, aldatu eta bertan behera utz lezakeela kirol eremuaren kokapena. Arkitekto horiek diote kirol eremua aldatu beharra dagoela baserri batetik arras hurbil dagoelako eta kaltegarria litzatekeelako. Eta ez al da kaltegarria bederatzi metroko altuerako fabrika bat jartzea 9 metrora dauden bi baserritatik?. Auzokideok jakin nahi genuke zernolako irizpideak erabili dituzten industrialde berri horren proiektua aztertzerakoan»*.

Andres Etxenike, Bertizanako alkatearen ustez, proiektuak on bertzerik ez dio eginen herriari: *«40-45 lanpostu sortuko ditu eta hori, industria gaur egun nola dagoen kontuan hartuta, gauza ona da. Batez ere emakumeendako lanpostuak izanen dira, prekozinatuetan, dendan, jatetxean… eta denok badakigu gaurko egunean emakumeek zail dutela lan munduan sartzea. Proiektu hau aitzinera ez ateratzea tontakeria litzateke»*.

## «LEGASAKO INDUSTRIALDEAN JARTZEA EGOKIAGOA DA»



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Lur eremu honetan gauzatuko litzateke Martikoren proiektua.**

Sinadura bilketa egiten ari diren bizilagunen ustez, Legasako lantegi ingurua da proiektua egiteko lekurik egokiena eta Arcelor-ek ez badu lurra saltzen, desjabetzearen bidea aztertu beharko luke Bertizaranako Udalak: *«Egungo alkateak 2000ko udal plana onartu zuen. Horren arabera, Legasako Industrialdea ageri da etorkizunean egin litezkeen erabilpen industrialetarako gune nagusi gisa. Baina, kurioski, ez da inolako proiekturik ekarri leku horretara. Ondorioz, uste dugu edozein dela industria proiektua zorrotz eta sakon aztertu behar dela, eta leku egokian ezarri, hau da, Legasako Industrialdean. Alkateak dioenez, bazter utzi dute aukera hori Arcelorrek orain arte ezezkoa eman diolako lur sailak saltzeari. Baina harrigarria egiten zaigu arrazoi hori; izan ere, eskuartean dugun dokumentazioan ez da deus ere aipatzen udalak egindako ahaleginez industria bertan paratu ahal izateko. Ez da gure afera gogoraraztea hirigintza arautegiak hainbat mekanismo eta formula ezartzen dituela udalek behar dituzten lur sailak lor ditzaten. Are gehiago, denbora asko ez dela, alkate berak aipatu mekanismo bat erabili zuen, eta Legasako industrialdeko lursail bat desjabetzeko prozedurekin hasi zen, bertan kamioiendako aparkaleku publiko bat egin zedin. Azkenean, ados jarri ziren bi aldeak eta ez zen desjabetzerik egon. Alkateak eta zinegotziek egin al dute ezer industria berria behar den lekura ekartzeko?»*.

## Andres ETXENIKE *Bertizaranako alkatea*



### *“Natura eta turismo aldetik, ez du kalterik eginen”*

**Proiektu honen kontrako sinadura bilketa egiten ari da…**
Egunkari batek 100 sinadura bildu dituztela jarri du, baina ez dakit aunitz jende herrikoa den… gazteak proiektu honen alde daude. Oraindik ez dituzte Herriko Etxean aurkeztu, baina alegazioekin batera aurkeztuko dituzte eta ikusiko dugu zer alegatzen duten. Ondotik ikusiko dugu arrazoia duten edo ez eta saiatuko gara proiektua aitzinera ateratzen.

**Bertizko Natur Parketik sobera hurbil dela diote…**
Ez zait iruditzen kontaminazio handirik sortuko duen proiektua denik. Bertiz kilometro terdira dago eta hurbilago badira bertze proiektuak, egin direnak eta ez da izan horrelako polemikarik. Natura eta turismo aldetik, proiektu honek ez du kalterik egin behar, ona bakarrik eginen du.

**Legasako industrialdea horretarako egokiagoa dela erraten dute idatzian…**
Legasan Arcelorrek badu eremu industriala, baina gehiena kontsumitua du. Bertze eremua errustikoa da. 2000. urtean Bertizaranako arauak onartu zirenean ez zuten saldu nahi izan eta gero ere Peio Martiko joan zen, baina ez ziren moldatu. Gasolindegia, jatetxea eta denda hemen kabitzen dela uste dugu. Hori bezalatsuko proiektuak badira hurbil eginak eta ez da horrelako polemikarik izan.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, SLU. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Nerea Altzuri, Jaione Otxandorena, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea… **Imprimategia:** Gertu. **Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

2006/02/16 • ***416.*** zbk.

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Santurtzin: III. Hizkuntza Eskubideen Eguna

Jakina da Euskal Herrian euskaldunoi hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen zaizkigula.Lurralde bereizketarik gabe ezin dugu gure herrian gure hizkuntzan bizi eta gainera azken urteetan euskararen eta normalizazioaren aurka Estatuek darabilten suntsipen estrategia egoera hori larriagotzen ari da. Euskarak estatus legal bakarra ez izateak, ofizialtasun ezak eta lurralde osorako hizkuntza politika bakarra ez izateak, eragin kaltegarriak dakarzki gure hizkuntzaren garapenerako. Beraz, hizkuntza eskubideen aldeko indar biltzean ahalegindu eta hauek bermatuak izan daitezen, eragin sozial trinkoago bat aktibatua izatea ezinbertzekotzat hartzen dugu.

Zentzu horretan antolatu dugu III. Hizkuntza Eskubideen eguna

"Hizkuntza eskubideen defentsa Guztion esku dago!" lelopean. Lesaka eta Oiartzuni lekuko hartuta, aurten SANTURTZIN izanen da. Egun horretan aisia eta aldarrikapena uztartuko ditugu.

Helburu nagusia ahal den indar euskaltzale gehiena Santzurtzin biltzea,bai eragile eta talde ikuspegitik eta zalantzarik gabe herritarren garrantzia azpimarratu nahi genuke. Santurtzira hurbildu, hizkuntza eskubideen inguruko hausnarketetan parte hartu, aldarrikapena 4 haizeetara zabaldu eta une atsegin bat pasatzeko aukera ezin hobea izanen delako. Beraz, horra hor gure gonbitea, apirilaren 2an Santurtzin elkar ikusiko dugu!

**LESAKAKO EHE**

## Haurtzaindegien prezio igoera

Nire desadostasuna adierazi nahi nuke haurtzaindegietan haurrak edukitzeko prezioak bikoiztu behar dituztelako iraileti aurrera. Lana egiten dugun emakumeei haurrak ez ekartzeko mundura esaten ari dira Gobernukoak. Gero, natalidadea jeisten ari dela diote… Nola ez ba, ematen dituzten laguntzekin!

Lotsagarria da Nafarroako egoera haurrak Haurtzaindegian sartu nahi dituztenentzat: alde batetik, Errenta Aitorpenaren arauera kalkulatzen dute (autonomoek nahi dutena deklaratzen dute) eta tonto aurpegia gelditzen zait enteratzen naizenean nire auzoak 15 euro ordaintzen dituela eta nik 90 euro. Baina berak nik baino askoz gehiago irabazten du, noski, autonomoa da…; beste alde batetik, haurrak sartzeko, tokirik ez badago, Errenta Aitorpena baxuena duen familiaren haurra sartzen da lehena, nola ez, autonomoarena.

Nire haurrak, bere haurrak duen zaintza eta ardura bera izango du, baina berak 15 euro hilabetean ordainduta eta nik 90 euro. Zergatik? Ez al dute tratu bera bi haurrek?

Ni zerbait erostera joaten banaiz, ez didate merkeago ematen gutxiago irabazten dudalako, besteak bezalaxe ordaindu behar dut. Orduan, zergatik, tratu beragatik, ordaindu behar dut gehiago?

Eskerrikasko Gobernuari bere laguntzagatik, ba niri oso ongi zetorkidan haurra haurtzaindegian apuntatzea, baina ez dut egingo prezioa bikoiztu behar dutelako eta besteak baino askoz gehiago ordaindu beharra dudalako tratu berdina izateko haur guztiek.

**Izaskun TELLETXEA ZUBIETA**
**(Leitza)**

## Hezkuntza Gidari buruz

Ttipi-ttapa aldizkariaren azkeneko alean Berako Jesusen Bihotza Ikastetxeko Guraso Elkarteak idatzi bat atera zuen, mankomunitate honek argitaratu eta banatu berri duen Hezkuntza Gidari buruz. Mankomunitateak honen bidez idatzi hari erantzun nahi dio. Hagitz luze joko luke gai honen inguruan eman nahi genukeen erantzunak, baina ez zaigu gaiari buruz eztabaidatzeko modurik egokiena iruditzen. Hortaz, idatzi hartan agertzen diren zenbait ideiari erantzutera mugatuko gara.

• *Gidak ez du informazio osoa ematen:* uste dugu orain arte atera izan diren informazioetan osoena dela, ereduei buruz solasteaz gainera, hezkuntza sistemari buruz, hezkuntza komunitateari buruz, hezkuntza mailei buruz, bekei buruz... ere ari delakoz. Edozeinek uler dezakeen modura, ikastereduei buruzko atalean, bakoitza zer den azalduta, mankomunitateak D ereduaren aldeko apustua egiten du (beti egin izan duen bezala).

• *Gaztelania ikasgai bakarra izanda ez da nahikoa hizkuntza hori menperatzeko:* ez dakigu zertan oinarritu diren hori errateko, baina gaur-gaurkoz erraten ahal dugu D ereduko ikasleek DBH bukatzerakoan gaztelania ederki menperatzen dutela, Bortzirietan eta Euskal Herri guztian. Are gehiago, zoritxarrez ikasle aunitzek ez dute aukerarik egin nahi dituzten ikasketa unibertsitarioak euskaraz egiteko, eta gaztelaniaz egin behar izaten dituzte; ez dugu uste inoiz gaztelaniarekin arazorik sortu zaienik.

• *Euskara mailan B eta D eredua parean daudela ezin da ukatu:* beraz, elkarte horren ustez B eredua da baldintza guztiak biltzen dituen eredua (gaztelania D ereduan baino gehiago ikasten da, eta, gainera, euskara bi ereduetan berdin!). EAEko Hezkuntza Sailak 2005ean 16 urteko ikasleen euskara maila aztertu zuen, eta ingelesezko first delakoaren paretsuko euskara proba bat egin zien. Emaitzak aski argiak dira: A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuen proba hori gainditu; B ereduko % 67k ez zuen gainditu; eta D ereduko % 32k ez zuen gainditu. Emaitza horiek gure inguruan aplikatzerakoan, jakin badakigu EAEko B eredua eta Jesusen Bihotza ikastetxean ematen direnak ez direla berdinak; halaber, ez zaigu iruditzen ikastetxe horretako B eredua eta bertze ikastetxeetan ematen den D

## • IRAKURLEAK MINTZO •

eredua ere parekatzen ahal direnik.

• *Berako B eredua ezin da konparatu Gipuzkoan ematen den B ereduarekin:* Hezkuntza Gidan ez da inon ere horrelako konparaziorik agertzen.

• *Eskola guztietan aurrerapen pedagogikoak badaude:* Hezkuntza Gidan ez da inon ere agertzen hori hala ez denik. Erraten den gauza bakarra da D eredua aitzindaria dela aurrerapen pedagogiko eta irakaslegoaren prestakuntzan. Informazio hori eman baino lehen behar den tokian kontrastatu dugu.

• *Eskatuko genuke hemendik aurrera informazio osoa objetiboki izanda, askatasun osoa uztea (...) erabakiak hartzeko (...):* Ikastetxea, ikasteredua eta gainerako erabakiak hartzeko askatasuna guk ere aldarrikatzen dugu, eta zalantza dugu orain arte hori beti errespetatu denik; argi utzi al zaie A ereduan matrikulatu dituzten haurren gurasoei eredu horretan ez dutela lortuko euskara menperatzea?; izan ere, A ereduan euskara ikasten dela erratea ez da informazio osoa ematea: ikasi ikasten da, baina ez da hizkuntza menperatzea lortzen.

• *Inork ez dezala presio biderik erabili gure etxeetara etorriz, informazio murriztua emanez, ezta ere gure erabakia kritikatuz (...):* esaldi horretan gauza aunitz erraten dituzte, eta horietako batzuk aski larriak, gainera. Mankomunitate honek aski garbi dauka ez duela inolako presio biderik erabili, ez duela informazio murrizturik eman eta, are gutxiago, inoren erabakia kritikatu. Aukeratzeko askatasuna defendatzen dugu, eta, horregatik, Hezkuntza Gidan bi orrialde daude Bortzirietako Ikastetxe guzti-guztiei buruzko informazio osoa eta zehatza ematen dutenak.

Gaur egun Euskal Herrian bertze eztabaida batzuk bizi ditugu. Hain zuzen ere, eskaintzen ari diren ikastereduek ez dutelakoz ikasle guztien euskalduntzea bermatzen, arestian erran dugun bezala; hori erakunde publiko batzuek ere onartua dute (Eusko Jaurlaritzak, errate baterako). Ondorioz, milaka ikasle (hiru ikasletik bi) geldituko dira euskara ikasi gabe. Handik eta hemendik aski ikertua dagoen gaia da hori, eta mankomunitate honek nahi duen ororen eskura utziko ditu dauzkan datuak.

Orain arteko hezkuntza sistema mantentzen den bitartean, mankomunitate honek D eredua defendatzen jarraituko du, hori delakoz euskara eta gaztelania menperatzeko garantia gehien ematen duen eredua. Gainera eta zorionez, halaxe ulertu du Bortzirietako gurasoen gehiengoak ere (% 85,6), eredu hori askatasun osoarekin aukeratuta.

**Bortzirietako Euskara Mankomunitatea.**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA 2006-03-19

*«Amaiur da nire lekua! Hemengoa naiz ni orain! Oraintsu izan da Egun ttun-ttun, inauteria. Haurren jolas egiteko eguna. Iaz ezustean harrapatu ninduen. Haurrak eskean heldu ziren eta ez nuen anitzik: freskagarriren batzuk eta kito. 'Heldu den urtean diferente izanen da!' erran nion nire buruari. Eta horixe egin nuen, pare bat asto, bi pintura-kaxa, pintura pote galantak… eman eskolari ttun-ttun egunarekin».*

**Ana Mari MARIN**
Elizondoko margolaria
ARGIA 2006-03-19

*«Nafarroako ipar aldea ez da bakarrik nazionalismoa. Nazionalistak enbidiosoak eta sektarioak dira, eta berekin bat egiten ez baduzu, fatxa bat zara. UPNk Nafarroa maite duen bitartean, nazionalistek Nafarroa nahi dute. Euskara eta kultur gaiak defendatzea garrantzitsua da, baina enplegua sortzeaz edo lantegiak egiteaz ere gogoratu behar dugu. Hori, Baztanen, arras gaizki kudeatzen da».*

**Leopoldo JAEN**
Baztango UPNko zinegotzia.
D.Navarra 2006-03-20
















LANA

# Enpresa ideiak gauzatzeko zailtasunak dituztenentzat «Empléate» proiektua abian

## Ideiak eta negozioak identifikatzeko tailerrak eginen dira Donezteben eta Elizondon

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako 16 erakunderekin batera, horien artean Cederna-Garalur elkartea, Empléate proiektua paratu du abian. Ekimen honen xedea, beren enpresa ideiak eratzen eta abian paratzen zailtasuna handiena duten pertsonen izaera sustatzailea bultzatzea eta enpresak sortzen laguntzea da, horretarako beharrezkoa duten laguntza emanez.

Ekimena, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatu du, eta Europar Batasuneko Equal ekimenaren barnean txertatzen da. Helburua enpresak sortzea da, metodo eta tresna berritzaileak diseinatuz eta garatuz, eta talde sustatzaileen premietara eta eskualdearen ezaugarrietara egokituko diren finantziazio formulak esperimentatuz.



ARTXIBOKOA

**Negozioak identifikatzeko tailerra eginen da apirilaren 5 eta 7an Donezteben eta ekainaren 19 eta 21ean Elizondon.**

Une honetan, dagoeneko abiatuak dira aurrikusitako hainbat jarduera eta, modu berean, eskaintzen dituen zerbitzu batzuk operatibo daude. Gure eskualdeari dagokionez, ideiak eta negozioak identifikatzeko tailerra eginen da apirilaren 5ean eta 7an Donezteben eta ekainaren 19 eta 21ean Elizondon.

Bertze aldetik, "Irten labirintotik" erakusketa herriz herri ikusgai izanen da Agoitzen, Elizondon, Altsasun eta Lekunberrin. Elizondon, Arizkunenea Kultur Etxean izanen da, maiatzaren 16tik 19ra, asteartetik ortziralera, 18:00etatik 21:00etara. Leitzaldean interesaturik daudenak, Lekunberriko erakusketa bisitatu dezakete maiatzaren 30etik ekainaren 2ra, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Mitxausenea Kultur Etxean.

Beren enpresa propioa sortu nahian dabiltzan pertsonek, negozio ideiaren bat garbi eduki edo ez, norbanakoari zuzendutako doako prestakuntza eta baliabideak jaso ditzakete, bakoitzak duen ideia abian paratzen laguntzeko. Horretarako harremanean jar daitezke Izaskun Abrilekin, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Tokiko Garapen Eragilearekin, 606 408613 edo 948 580561 telefonoetara deituz, baita Arantxa Arregirekin ere, Bertizana, Malerreka eta Bortzirietako Tokiko Garapen Agentearekin, 606 431357 edo 948 625122 telefonoetara deituz.

Empléate proiektuak honako taldeak hartzen ditu bere barnean: lan merkatuan txertatu nahi duten 30 urtez goitiko emakumeak, ezkutuko ekonomian ari diren 30 urtez goitiko emakumeak, lan egonkorrik gabe dauden edo mugitzeko aukerarik ez duten emakumeak, etorkinak, ijitoak, gazteak edo egoera ahulean dauden taldeak, alegia, langabezian denbora luzea daramaten pertsonak, bazterkeria sufritzeko egoeran eta langabezian dauden pertsonak eta gisakoak.














BERA

# Maddi erresidentziari dirulaguntza emateko aukera aztertzen ari da Nafarroako Gobernua

## Horrela jakinarazi zuen Ongizate kontseilariak

Amaia eta Ainhoa

Martxoaren 17an Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Ongizate Kontseilaria, Herriko Etxean bildu zen herriko zinegotzi, zaharretxeko, Uxane zentruko eta Maddi erresidentziako arduradunekin. Bilkura honetan, Palaciosek Maddi erresidentzia ireki ahal izateko modu edo aukera bat proposatu zuen. Maddi, ezintasun psikikoa duten pertsonentzako erresidentzia da eta momentuan pertsona bakarra bizi da. Gaur egun erresidentzian plazak eskatzeko aukera haundirik ez dago, daukan kostuagatik eta suposatuko lituzkeen beharrengatik. Irtenbidetako bat, Gizarte Ongizateko Sailak, baliabide guttiko pertsonentzako dirulaguntzak ematea izan zitekeen. Zentruko 16 plazak bete daitezen, laister, Nafarroako Gobernuko teknikoak Gizarte Zerbitzuko langileekin bilduko dira. Zentruan bizitzeko interesa duten pertsona guztien fitxak aztertuko dira eta zonaldean horrelako bertze zentrurik ez dagoenez, eskualdeko bertze herritako pertsonek ere sartzeko aukera izanen dute. Zentruan sartu nahi dutenen egoera pertsonala kontutan hartuko da, horrela, interesatuari ordaintzen ahal duena bakarrik kobratuko zaio, gainerakoa Nafarroako Gobernutik bakoitzak zuzenean jasoko lukeen dirulaguntzarekin ordainduko litzateke.

Plaza hutsak gelditzuz gero, kontseilariak "familiak arnasteko" plazekin osotzeko aukera aipatzen du, Anasapsek Etxalarko Larraburua etxean eginen duen bezala. Maddi erresidentzia, gutti gora behera tutoretzapeko pisu moduan ireki zitekeen. Baina azaldutako hau, momentuz, alternatiba bat da eta gaur egungo egoera desblokeatzeko modu bat izan zitekeen.



Argazkia: Xan HARRIAGUE

### *Drogomenpekotasunaren prebentziorako herri plana aurkeztu da*

**Berako Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak Askagintza eta Nafarroako Gobernuko Osasun Sailaren laguntzarekin Berako drogomenpekotasunaren prebentziorako plana aurkeztu zuen martxoaren 18an, duela urte eta erdi garatzen hasi zena. Aurkeztu plan hau, oraindik zirriborro bat bertzerik ez da, dokumentu hau egin daitezkeen aportazioekin birformulatu baitaiteke. Udalean aprobatu ondoren, seguraski argitaratuko da eta egindako azterketa CD batekin lagundu daiteke. Herriko egoeraren diagnostikoa elkarrizketa pertsonalizatu eta Berako agente ezberdinekin egindako talde-eztabaiden bidez garatu da. Musika Eskolan egindako aurkezpenean, eztabaida-taldeek soluzio batzuk planteatu zituzten: Nerabeei arlo ezberdinen inguruko informazioa emateko plan osotu bat edo lan-taldeak sortzea. Izan ere, azterketa lanaren arabera, Berako egoera ez da hain larria, baina bai kezkatzeko moduko momentuak eman daitezkeela. Honen aintzinean garatutako plana lau zutabetan oinarritzen da: normalizatzeko helburua, metodologia partehartzailea, planifikatutako prozesua eta herri estrategia. Bortz urtetako proposamen bat da eta programa ezberdinak aurkezten ditu: osasun heziketarako eta familia, hezkuntza eta herri mailako drogomenpekotasunaren prebentziorako programak. Horrela, nahiz eta programa hauek nagusiki nerabe eta gazteei zuzendu, familia eta herritar guztiei (guraso, enpresa, hostalari, irakasle, dendari, etab.) zuzenduko dira.**

### *Haurrentzako ipuin kontalaria*

Berako Kultur Batzordeak eta liburutegiak antolatuta, martxoaren 31an ipuin kontalaria izanen da haurrentzako ipuinak kontatzen. Izaskun Leitza arratsaldeko 18:00etan izanen da liburutegian.

### *Hitzaldia*

Datorren ortzegunean, martxoaren 30ean, hitzaldi bat izanen da Uxua Emakume Elkarteak antolatuta. Mirentxu Goienetxe, Rakel Mateo eta Ainhoa Arburua "Cómo superar el duelo", dolumina nola gainditu gaiaren inguruan arituko dira Kultur Etxean 19:00etan.









LESAKA

# Udaberriaz gozatzeko ekitaldi proposamen zabala egin du Udalak

## Apirilaren 9an Tantirudantza Eguna ospatuko da

**Aitor AROTZENA**

Herrian udaberriaz gozatzeko hainbat ekitaldi proposatu ditu Udalak apirilerako. Honela, gure bide berdea proposatzen dute, Endarlatsa eta Lesaka tartean, bizikletaz eta oinez ibiltzeko. Ingurune naturalari dagokionez, zailtasun-maila desberdinetako ibilbide laburrak eta herri bideak ere proposatzen dira. Bertze aldetik, apirilean eginen dira Agiña-Lesaka-Oteiza bisita gidatuak, apirilaren 8an eta 30ean Donostiatik, 9an Lesakatik eta 29an Iruñetik. Kultur eta kirol arloan ere izanen da zer aditu eta zer ikusi datozen egunotan: larunbatean, apirilaren 1ean, Joseba Irazokik kontzertua eskainiko du Kasinoan 22:30etan. Egun berean, Xabier Altzugarai pilotari almandoztarrak profesionaletan debuta eginen du udal pilotalekuan, 17:00etan. Zezeagarekin batera, Berraondo eta Jexux Mari Almandoz herritarraren kontra arituko da. Apirilaren 9an, Tantirudantza antolatu du Tantirumairu dantza taldeak. Herrikoekin batera, Faltzesko Makaia, Lasarteko Erketz eta Errenteriako dantza taldeak arituko dira goizez. Arratsaldean, Kiki, Koko eta Moko pailazoak izanen dira plazan. Apirilaren 10etik 23ra, Erdi Aroko emakume-kapeluak erakusketa zabalduko da Beti Gazten. Apirilaren 23an izanen da Erdi Aroko Azoka eta eguna girotzeko zenbait ekitaldi ere eginen dira aste hondar horretan.



ARGAZKIA. AITOR

**Josu Almandozek eta Iker Aiestaranek irabazi dute Batzokik antolatutako I. Frontenis txapelketa. Finalean 30 eta 20 irabazi zieten Iñigo Rodriguez eta Diego Martinez-i. Hirugarren Josetxo Mitxelena eta Igor Telletxea izan ziren eta laugarren Felix Egues eta Igor Romano.**

### Apirilean haur-parkea antolatu da

Programa honen barnean, Aste Santuko oporraldirako bertze eskaintza izanen dute Bortzirietako haurrek. Izan ere, haur-parke bat paratuko da Irain eskolako pilotalekuan apirilaren 8 eta 9ko asteburuan eta Ortzegun Santutik aitzinera, apirilaren 13tik 22a arte, biak barne. Haur ttikienentzat txirrista-gunea, Altxorraren Uhartea, Ludoteka eta Piloten etxea izanen da eta koxkorragoentzat, Oihana, Futbol-ate puzgarria, eskalatzeko gune puzgarria, bi ping-pong mahai, bi futbol-mahai eta pintura tailerrak. Haurparkea zabalik izanen da 16:00etatik 20:30etara eta prezioei dagokienez, arratsalde baterako 3 euro ordaindu beharko da; hamabi egunetarako txartela 25 euro eta hamabi egunetarako familia osoarentzat txartela 30 euro. Txartelak lortzeko, 012ra deitu eta han emanen dute informazio guzia.

## FLASH

### *Beti Gazteren batzarra*

Martxoaren 10ean egin zuen Beti Gazte elkarteak urteko batzarra. Egia erranda, ez zen bazkide aunitz hurbildu egoitzara, elkarteak dituen 815etatik 15 inguru. Aurtengo aurrekontua iazkoaren bikoitza izanen da, 171.800 euro. Igoera hau bi dirusailetan somatzen da batez ere: alde batetik futbol zelaian 50.000 euroko gastuak aurrikusi dira. Dagoeneko lan batzuk egin dira urte hasieran, argiteri berria jartzen. Bertze aldetik, jazz dantza eta gisako ikastaroetarako 40.000 euroko gastua aurrikusi da. Zuzendaritza batzordean, Cañi Zayas idazkaritzan eta Jesus Mari Zapiain eta Diego Garibai mendi sailan sartu dira. Hilabetero haur eta gurasoendako mendi ateraldi errazak antolatzeko asmoa du elkarteak.

### *Liburutegia*

Nafarroako Gobernuak udal liburutegiaren katalogoa automatizatzeko dirulaguntza eman du. Honela, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko katalogora bilduko da. Zehazki, 14.586 euroko dirulaguntza hartu du Udalak, lanen aurrekontuaren %65a. Automatizazio honekin, Interneteko erabiltzaileek jakin dezakete liburutegian eskura dutena eta, Nafarroako liburutegi publikoen erabiltzaile txartela duenak, liburuak maileguan eskatu ditzake.







ETXALAR

# Apirilaren 9an eginen da Usategietako IX. Auto Igoera

Goizeko 9etarako itxiko da errepidea



ARTXIBOKOA
**Plaza inguruetan biltzen diren autoek jendearen ikusmina pizten dute Usategietako Igoera egunean.**

Joseba eta Nerea

Heldu den apirilaren 9an eginen da Usategietako IX. Auto Igoera. Urtero bezala, egun handia izanen da inguruko auto zaleentzat. Eguraldiak laguntzen badu bederen, jende aunitz hurbilduko da Usategietako errepide bazterretara goizean goizetik. Urtetik urtera arrakasta handiagoa du Usategietako igoerak eta Eguzki Sport Eskuderiako antolatzaileek aitzineko urtetako markak haustea espero dute aurtengo edizioan.

Duela urte batzuk Gorosurreta auzoko bizilagunekin izandako tirabira batzuk kenduta, arazorik gabe ospatu da beti auto igoera. Inoiz ez da istripu larririk izan, ezta besta giroa oztopatu duen arazorik ere. Igoeraren lehiaketa-izaeratik kanpo, besta giro polita izaten da nagusi urtero. Euskal Herri osoko jendea hurbiltzen da Etxalarrera. Gazteak gehienbat. Rallyak eta auto-igoerak gustuko dituztenentzat egun markatua izaten da. Aurtengoan ere ez da guttiago izanen.

Goizeko 9etan itxiko da Usategietako errepidea. 10etan hasiko dira entrenamenduak eta ondotik, segidan, bi auto-igoerak eginen dira. 11tan lehenbizikoa eta 12etan bigarrena. Eguerdi alderako karrikara jautsiko dira auto guztiak eta arratsaldeko 3ak aldean izanen da sari-banaketa. Aitzineko ediziotan herriko auto-gidariek marka politak lortu dituzte. Ikusi beharko dugu aurten ere herritarren bat ateratzen den eta lan txukuna egitea lortzen duen.

## *Kooperatibako «gasolinera»*

Ez da berez «gasolinera». «Unidad de suministro», hornidura-unitatea izena du Usoa kooperatiban irekiko dutenak, bi gasoil mota bakarrik salduko baitituzte. Gasolineratan, berriz, produktu gehiago saltzen dituzte.

Urte bateko lanaren ondotik, datozen asteetan paratuko dute martxan. Unitate honetan A gasoila (autoentzako) eta B gasoila (kalefaktziorako eta traktoreentzako) erosteko aukera izanen da. Gasoila erosteko aukera denek izanen dute, kooperatibako bazkideek eta bazkide ez direnek, eta txartelen bidez funtzionatu nahi dute. Halere, hurrengo alean emanen dugu txartel hauen inguruko informazioa. Baita «hornidura-unitate» honen inguruko informazio zabalagoa ere.

## *Mus eta partxis Magra sariketa*

Joan den martxoaren 12an akabatu zen Larraburua elkartean mus eta partxiseko Magra Sariketa. Musean Santiago Olasagasti eta Gaston Lestucci izan ziren irabazleak eta magra azpia eskuratu zuten. Bigarren postuan berriz, Teodoro Iribarren eta Santiago Mitxeltorena gelditu ziren eta bizkar azpia etxeratu zuten. Partxiseko irabazleak Julia Elizalde eta Maria Esther Bereau izan ziren. Bigarren postua Mari Cruz Andueza eta Encarna Iparragirrek lortu zuten. Sari banaketa martxoaren 18an egin zen Larraburua elkartean. Partaide guztiak afari eder baten inguruan bildu ziren sariak banatu ondotik. Orain, Udaleheneko txapelketa hasiko dute.









ARANTZA

# Ekaitza Elkarteko eta Bortzak Bat Kooperatibako juntak berritu dira

## Gaztetxoak indartsu ari dira Nafarroako Herri Kirol Jolasetan

Nerea ALTZURI

Bi urtero egin ohi den moduan, Ekaitza Elkartean, urte hasierarekin batera junta berritu da. Elkarteko kideei bazkideen zerrendarekin orri bana bidaltzen zaie eta bazkide bakoitzak bederatzi izen aukeratzen ditu. Orriak egoitzan utzi ondotik, izen zenbaketa egiten da eta gehien errepikatuak izan diren bederatziak gelditzen dira. Lehengo juntak bederatzi bazkideei aukeratuak izan direnaren berri ematen die eta aukeraketan adostasuna lortuta, arduren banaketa egiten da. Honelaxe gelditu da sozietadeko batzordea: Lehendakaria, Aitor Telletxea; lehendakariordea, Gaizka Almandoz; diruzaina, Idoia Etxeberria; idazkaria, Nekane Maia; kirol komisioan, Joxe Ramon Amoros, Martxelo Jorajuria eta Mikel Leiza; eta bodegazain eta mantenimendu arduretan, Juanjo Altzuri eta Jaime Iturria.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGE

**Joan den martxoaren 19an, Elizondoko Lur dantzalekuan eginiko moda desfilean, Amaia Ileapaindegiak parte hartu zuen. Argazkian, Amaia Apezetxea Telletxea aranztarraren modeloak ageri dira, tartean herritarren bat edo bertze. Adin guzietako neska mutilak izan ziren eskenatoki gainean ile orrazkera eta mozketa modernoak nahiz fantasia ukituarekin erakusteko asmoz. Udaberriko tendentziak erakutsi zituzten bertan.**

Bertzalde, joan den martxoaren 10ean, Bortzak Bat kooperatibako bilera izan zen.Bertan, kontuen informazioa emateaz gain, proposamenak jorratu ziren.

Bortzak Bat-eko junta ere berritu zen urtero bezala. Auzoetan eta herrigunean dauden bazkideak hartu eta arduraduna urtetik urtera aldatzen da.

Juntako presidente eta herriko ordezkari, Justo Larralde izanen da Rosa Mari Iribarrenekin batera. Bordalarrea auzoko ordezkaria Lorentzo Telletxea; Eguzkialdean, Timoteo Iguzkiagirre eta Jesus Mari Lukanbio; Azkilarrean Felix Iparragirre eta Aientsan berriz, Josetxo Taberna. Koperatibako abisuak ordezkari horiek heleraziko dizkiete bertze bazkideei.

Azkenik, joan den igandean, Zahar Txokoko bazkideek elkarteko besta egin zuten bazkari batekin egoitzan bertan.

## Neska-mutilak herri kiroletan

ttipi-ttapa

Udaberriarekin batera, Nafarroako Herri Kirol Jolasak urteroko hitzordua dira herriko gaztetxoentzat. Proba konbinatuan nahiz sokatiran, emaitza onak izan dituzte orain arte. Ohi bezala, astetarteko entrenamendu saioen ondotik, jardunaldi ezberdinetan parte hartzen ari dira azken igandeetan. Martxoaren 19an bigarren jardunaldia jokatu zen herriko frontoian.

Haur mailako proba konbinatuan hagitz denbora onak egin ditu Arantzak eta hamar taldeetatik lehen postuan dago.

Kadete mailako proba konbinatuan ere ederki ari dira gazteak. Lehenengo bi igandeetako saioetan bigarren sailkatu ziren.

Sokatiran berriz, kadete mailako taldea osatu dute narbartearrekin batera. Beraz, herriko ordezkaritza hagitz bide onetik doa apirilaren 9ko finalari begira. Joan den igandean, Urdiainen aritu ziren eta igande honetan Igantzin aritzekoak dira.









## IGANTZI

# Piszinetako lanetaz arduratzeko enkantea ireki du Udalak

### Zenbait berrikuntza badira aurtengo baldintzetan

**Oskar TXOPERENA**

Udaberrian sartuak gaudenez, udan egin beharreko zenbait lan enkantean ateratzeko tenorea ailegatu zaio Udalbatzari. Hortaz, azkeneko bilkuran ireki zuen epea piszinaren aurtengo denboraldiko lanetaz arduratu nahi dutenek eskaintzak Herriko Etxera eramateko. Apirilaren 12ra arte izanen aukera horretarako eta zenbait berrikuntza izanen ditu baldintza-pleguak. Errate baterako, lana hartzen duenak ez ditu orain arte bezala piszinak eta belarra zaindu beharko, albintea arduratuko baita lan horietaz. Hori dela medio, hasierako salneurria ere 1.000 eurora jaitsi egin da. Ostatua eta aldagelak zaintzea eta sarreretaz arduratzea izanen dira hartzen duenaren lanik garrantzitsuenak. Halere, informazio zuzen eta osatuagoa nahi duenak Herriko Etxean eskuratzen ahal ditu baldintzak.



ARGAZKIA: BEÑAT TXOPERENA

**Musikaz beteriko arratsaldea izan zen martxoaren 22koa Igantzin. Izan ere, Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolako partaideek bisitatu gituzten. 16:00etan kalejira egin zuten herrian barna eta ondotik kontzertua eskaini zuten Baratzondon. Ez omen da elkartea inoiz hainbertze bete. Bertan izan ziren Berara musika ikastera joaten diren igantziarrak ere.**

### *Eskolara bisita*

Aitzin horretan Agustin Zamora Senpereko olerkariaren bisita izan zuten eskolan. Poesia lantzeko eta bakoitzaren sentimenduak azaleratzen ikasteko egin omen zuten topaketa Agustinekin. Irakasleek hagitz balorazio positiboa egin dute ekitaldiaz eta apirilaren hasieran Senperen eginen den liburuaren aurkezpenera gonbidatuak omen daude ikasle eta irakasleak.

### *Haurrak Herri Kiroletan*

Iaz hasi zuten igantziko haurrek herri kiroletako ibilbidea. Badira lantegi horretan Igantzik baino aunitzez eskarmentu gehiago duten herriak, Arantzak errate baterako. Lehenbiziko denboraldian alebinak aritu ziren bakarrik, nonbaitetik hastea baitzen kontua. Aurten hiruzpalau aste daramazkite herriz-herri lehiatzen izena eman duten 20 haurrek. Nafarroako Kirol Jolasetan parte hartzen ari dira bi mailetan: kirol konbinatuan ari dira alebinak eta infantilak sokatiran eta konbinatuan. Iazko denboraldia aurtengoa baino hobekiago hasi omen zuten, baina poliki-poliki hartuko diete neurria oraingoari ere.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Itxura izugarriarekin zihoan Bidasoa ibaia martxoaren 11an Berrizaunen barna. N-121-A errepidea ordu luzez egon zen moztua, Zerunetako parean ibaiak bi norabideak oztopatzen zituelako. Molinean, ibaitik hurbilen dagoean etxean, barrengo aldeko atarea ere hartu zuen urak.**

### *Barrikotea Biltokin*

Apirilaren 8an izanen da Biltoki Elkarteko barrikotea. Hirugarren urtea da antolatzen dela, eta, orain arte behinik behin, harrera ona izan du bazkideen aldetik. 22 euro ordaindu beharko ditu joan nahi duen bazkideak eta bazkide ez denak, berriz, 26 euro. Joateko asmoa daukanak jakin dezala apirilaren 2an, igandean, akautuko dela izena emateko epea.







BORTZIRIAK

# Kaleratutako langileak berriz ere hartzea eskatu dute Zalaingo ELA eta LABek




UTZITAKO ARGAZKIA

**Zalaingo Condesa lantegiko Enpresa Batzordeko LAB eta ELAko kideek elkarretaratzea egin zuten martxoaren 10ean enpresa honek Arabako Miñaon dauzkan bulegoen aitzinean.**

**ttipi-ttapa**

Zalaingo Condesa lantegiko ELA eta LAB sindikatuak, lantegiko zuzendaritzak hartu duen norabidearekin kezkati agertu dira, Condesak plantila modu basatian murrizteaz gain, bere bideragarritasuna zalantzan jartzekotan dagoela uste dutelako. ELA eta LABek Zalaingo batzordearen %70a osatzen dute. Martxoaren 10ean, bi sindikatu abertzaleetako ordekariek, Langile Batzordearen izenean, elkarretaratzea burutu zuten Miñaon, Condesaren bulegoaren aitzinean, langile kanporatua berriz hartzea eskatuz.

ELA eta LABen ustez, joan den urteko maiatzaren 20ean sinatutako Plan Estrategikoa adosteko Enpresa Batzordeak egin zituen eginahalak hutsean utzi ditu Condesako zuzendaritzak. Akordio horrek dio ez dela kaleratzerik izanen eta plantillan, langile kopuru batzuk bermatzen ditu. Joan den urtarrilean, ordea, langile bat kanporatua izan zen, 52 urterekin eta 34 urtez bere zerbitzuak lantegian eskaini ondotik, beretzat lanposturik ez dela argudiatuz. Otsailean bertze 24 langile ere kanporatu dituzte, nahiz eta hauek behin behineko kontratuak zituzten.

Honela, iaz sinatutako Plan Estrategikoaren arabera gaur egun 351 langile izan beharko ziren Zalainen, baina 15 guttiago daude. Planak dio tubo-makinetan 95 langile izan behar direla gaur egun, baina 55 bertzerik ez daude, eta hori bajan dauden langileak ere kontuan hartuz.

ELA eta LABen ustez, honekin agerian gelditzen da Condesako zuzendaritzak akordioak ez betetzeaz gain, bere kasa hausten dituela, kasu batzuetan egoera larriak sortuz. Jarrera honekin, zuzendaritza egoera liskartsua sortzen ari dela uste dute sindikatuek, ustez gaindituak ziren jarrerak hartuz berriro ere.

Zalaingo ELA eta LABek, kaleratua izan den emakumea eta behin behineko kontratuarekin kaleratuak izan diren bertze 29 langile bezalaxe, berehala hartzea exijitzen dute. Horretaz gain, lantegian elkarrizketa eta negoziazioan oinarritzen diren lan harremanak eta egokia den giroa bideratzea eskatu diote zuzendaritzari.

Kontuan hartuz Zalaingo lantegiak, bere ia 40 urteetan, Condesak 2004ko urtarrilean hartu zuen arte banaz bertze 480 langile okupatzen zituela, gaur egun eman den plantilla murrizketa basatia kezkaz bete du Enpresa Batzordea.











SUNBILLA

# Martxoaren 10eko euriak kalteak eragin zituen hainbat tokitan


ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA
**Bidasoa errekak gainezka egin zuen herriko hainbat tokitan.**

**Jaione O. A.**

Joan den martxoaren 10eko gauean izugarrizko euri zaparradak egin zituen eta hainbat tokitan errekek gainezka egin zuten. Horrela bada, gure herritik pasatzen den Bidasoa errekak hainbat tokitan gainezka egin zuen; etorkizunean Ramon Latasa plaza izanen dena, plaza zaharra, frontoia eta bertze zenbait eremu urez beteta azaldu ziren. Hala ere, arazo gehien sortu zituen erreka Ukuluko erreka izan zen. Herriko goiko auzotik pasatzen den erreka ttiki bat da eta urte sasoi gehienean arras ur gutti eramaten duena. Erreka hau, Exkernea eta Etxexuria etxeen ondoan tubo batetik pasatzen da eta tuboa hasi eta barrentxeago sare moduko bat dauka zikinkeri haundiak pasatzea saihesten duena. Aipatutako sare hori, lurrez eta zikinkeriz bete zen gauean eta goizalderako errekak gainezka egina zuen beheko auzoetara ur korronte haundiak eramanez eta etxe aunitzetara ura sarreraziz. Herrian dauden alkantarillak horrelako ur kopuru izugarriak bapatean jasateko prest ez zeuden nonbait eta zenbait zonaldetan egoera itxusi xamarrak ikusi ahal izan ziren.

Aipatu behar ere zubi berria larri xamar ibili zela urez gainezka ez egiteko, baina ezin gauza bera erran erromatar zubi zaharraz. Izan ere zubi horrek dituen urte pilarekin, eta egin zutelarik orain guk dauzkagun aurrerakuntzarik ez bazuten ere, argi dago garai hartakoek ez zutela zubiari altuera gehiago emateko dudarik izan, horrela uholdeak saiestu ahal izateko. Oraingoan bederen ez da makur handiagorik gertatu eta espero dezagun etorkizunean ere horrelako egoerak ahalik eta guttien gerta daitezela.

## *Mendi ateraldia igandean*

Igande honetan, apirilaren 2an Ulibeltza mendi taldeak bere hurrengo mendi ibiladia eginen du. Oraingo honetan, goizeko 7:30etan aterako dira Itturburu ostatutik eta Zumaleku, Mendaur, Illurdi, Gartzunborda, eta Auloatik pasatu ondoren berriro herrira itzuliko dira. Antolatzaileek abisatu duetenez, ibilaldi honetara nahi duen guztia joan daiteke, baina ibiladi hau egiteko prestakuntza ona izatea komenigarria omen da.



ITUREN

# Zeharbidea hobetzeko inbertsioa 852.306 euroko izanen da

## Zatirik handiena Nafarroako Gobernuak ordainduko du

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuak martxoaren 13an egindako batzarrean baimena eman zion Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Departamentuari Iturengo zeharbidea hobetzeko lanetan 443.538 euroko inbertsioa egin dezan. Dirutza honetako zatirik handiena lanak berak hartuko du, 403.646 euro, lanen zuzendaritzarako 23.019 euro bideratuko dira eta proiektua idazteko 15.871 euro. Jakina denez, Iturengo zeharbidearen lanak, ur-hornidura sarea berritzeko, zolaberritzeko eta egokitzeko lan handiago baten barrenean daude. Lan osoaren aurrekontua 852.306 eurokoa da. Toki Administrazio Departamentuak 382.220 euro jarriko ditu eta Iturengo Herriko Etxeak 56.737 euro.



ARTXIBOKOA

**Kilometro erdi arras estua du Iturengo zeharbideak. Tokia berez estua denez, bideak hiru metro terdi eta bortz metro bitarteko zabalera hartuko du eta metro erdi eta metro bitarteko espaloiak eginen dira.**

### 700 METROKO BIDEA

Iturengo zeharbideak, Leitza eta Doneztebe lotzen dituen NA-170 errepidean 700 metro hartzen ditu. Horietatik 500 metro hagitz estuak dira eta etxebizitzak ditu bi aldeetan. Bata bertzearen ondotik egindako zolaberritze lanen ondorioz, errepidea altxatzen joan da eta orain, auniztan etxebizitzen sarrera baino altuago dago. Edatekourak banatzeko eta urzikinak biltzeko sareak berritu ondotik, zola berria emanen da eta metro erdi eta metro bitarteko espaloiak eginen dira. Tokia berez estua denez, bideak berak hiru metro terdi eta bortz metro bitartean hartuko ditu, lekuaren arabera.

MALERREKA

# Babesturiko giza lanerako teknikaria behar du Mankomunitateak

**ttipi-ttapa**

Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak 2006ko babesturiko giza lana eta gizarteratze arloko aktuazioak egiteko arduratzeko tekniko bat hartu nahi du aldi baterako. Beti ere lana Nafarroako Gobernuko Institutuko dirulaguntzaren menpe izanen da. Aurkezten denak Gizarte Lanaren diplomadun titulua izan beharko du eta lanaldia denbora osokoa izanen da. Euskara jakitea derrigorrezkoa da eta EGA titulua ez dutenek proba egin beharko dute apirilaren 6ko goizeko 9etan. Ondotik, proba teoriko-praktikoa izanen da interesatu guzientzat apirilaren 7ko goizeko 9etan.

Interesatuak Mankomunitateko bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera apirilaren 4ko eguerdiko 2ak arte.









ARRANTZA

# Hondarribiko Jose Luis Lopezek atera du «Lehendabizikoa»

## Martxoaren 19an, sasoia ireki zen egun berean arrantzatu zuen 50 putzuan



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Jose Luis Lopez gustora ageri zen, kasik 5 kiloko pisua eman zuen «Lehendabizikoarekin».**

**ttipi-ttapa**

Izokin arrantza sasoia ideki eta berehala atera dute aurtengo Lehendabizikoa Bidasoan. Martxoaren 19an, 11:30ak aldera Jose Luis Lopez Markinez, 67 urteko hondarribiarrak, 50 delako putzuan 4,950kg eta 70 cm zituen izokina uretik atera zuen. Goizean goizik abiatu zen eta 7:30etarako dagoeneko Bidasoa bazterretan zebilen, Endarlatsako zubia eta presaren artean. Sasoiko lehen eguna izanik ez zen lehendabizikoa izan erreka bazterrera hurbiltzen. Baina eguerdi aldera suertea izan zuen eta izokin bat koilariara jokatu zitzaion. 7 minutuz gaztakan aritu ondoren uretik ateratzea lortu zuen. Jose Luisek Bidasoako bazterrak ongi ezagutzen ditu, duela 30 urte hasi zen arrantzan eta 2000. urtean ere bera izan zen lehendabiziko izokina atera zuena.

Aurten, egun berean lehendabizikoa ateratzearen garaikurra eskuratu zuen Juan Otamendi Lasaga Berako Ehizi eta Arrantza elkarteko presidente ordearen eskutik. Honek, Nafarroako Gobernuak aurten ezarri duen araudia kritikatu zuen. Izan ere, zortzigarren izokina ateratzen denean, behin behinekoz denboraldia itxi eginen da, ekaineko hirugarren igandera arte. *«Neurri hau ez da egokia»* zioen Otamendik.

Hartza iruñeako ostatuak izokina erosi du 1600 eurorentzat. Lehendabizikoa ateratzeko nahiko goiz da. Hori dela eta arrantzale guziek espero dute aurtengo sasoia joan den urtekoa baino hobea izanen dela, iaz 37 izokin bertzerik ez baitziren arrantzatu, azken urteetako kopururik kaxkarrena. 2004an 48 izokin atera ziren.



## BERTIZ

# 800.000 euroko inbertsioa eginen da aurten Natur Parkea egokitzeko

### Itsuen bisita errazteko GPS bitartez sistema berria ezarriko da

ttipi-ttapa



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

**Martxoaren 20an bisitatu zuen Bertizko Natur Parkea Burgete kontseilariak eta inguruko udal ordezkarien laguntza izan zuen.**

Nafarroako Gobernuko Ingurumena, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuko kontseilariak Bertizko Natur Parkea bisitatu zuen martxoaren 20an, aurten parkean eginen diren egokitze eta hobetze lanen berri zuzena jakiteko. Lan honetarako 800.000 euroko aurrekontua bideratuko du Nafarroako Gobernuak. Bertzeak bertze, pertsona itsuendako parkerako sarbidea eta bisita erraztuko da. Kontseilariarekin batera, Bertizarana, Baztan eta Etxalarko udal agintariak, Oieregiko kontzejukoak eta Bidasoa-Berroarango juntakoak izan ziren Bertizen.

Aurten eginen diren egokitze lanen bitartez, publikoaren erabilerarako kalitatezko eskaintza egin nahi da, beti ere lekuaren kontserbazioarekin bateragarria den neurrian. Honela Zabala etxea moldatu eta gazteendako aterpe gisara irekiko da; lorategi historikoko zuhaitzak seinalizatuko dira; batez ere hezkuntzara zuzendutako oihan mindegia instalatuko da; Parkearendako berezko web-orria osatuko da; Bertizen eta inguruan dauden oihan-mota ezberdinen erakusgarri den lorategi botanikoa jarriko da eta jaurerrira sartzeko zubiaren lanekin segituko da. Modu berean, arestian aipatu bezala, itsuen bisita errazteko GPS sistema berri bat ezarriko da eta horretarako hainbat bilera egiten ari dira ONCE Fundazioarekin. Modu berean, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuarekin, Parkera ailegatzeko seinalizazioa ere hobetuko da. Azkenik, bertze urteetan bezalaxe, Bertiz mendian mantenimendu lanak eginen ditu parkeak, inguratzen duen zerrakura hobetuz eta bertakoak ez diren zuhaitzak pixkanaka kenduz. Oihan mindegiaren bitartez, parkean bertan sortuko dira zuhaitzak, Bertiz mendian bildutako haziak erabiliz.

## ARKUPEAK

# Apirilaren 4an Erriberara joanen dira erretiratuak

ttipi-ttapa

Arkupeak elkartea Erribera aldea bisitatuko du berriz ere. Apirilaren 4rako antolatu den ateraldian Kastejon eta Argetasko Senda Viva parkea bisitatuko dituzte. Parke tematiko honetan, erretiratuek barneko autobusa izanen dute eskura, area ezberdinak bisitatzeko. Ibilbidean, parke honetan bizi diren 300 animalien ohitura eta bizimoduaren berri emanen dute gidariek eta Bardeetako paisaia ikusgarriaz gozatzeko modua ere izanen da. Alfonbra gaineko hegaldi birtuala , Bardeei buruzko multimedia ikuskizuna, hartz eta otsoen pasabidea, misterioaren etxea eta hegazti harraparien Europako hegaldi erakustaldi onenetako bat ikusteko modua ere izanen dute.

Baina bidaiak badu bertze erakarpenik ere. Kastejonera ailegatzerakoan ongi gosaltzeko modua izanen da, txistorra, tortilla eta postre eta guzi. Senda Viva bisitatu ondotik, bortz platereko menua eta postrea duen bazkaria eta bazkalondoko dantzaldia izanen dute.

udana salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SCC-02-0199

Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

ZUBIONDO JATETXEA




# moda 06

## gehigarria

## udaberria–uda










# Udaberri-Uda 06



## EMAKUMEZKOAK

Udaberri udako modak urrutiko kultura exotikoetara bidaiatzera gonbidatzen du.

Afrikako lur koloreak ikusiko ditugu. Bexak, laranjak eta berdeak tonu metalizatuekin nahasten dira. Kolore hautseztatuek irabaziko dute. Txuriekin batera, urdina denboraldiko protagonistetako bat izanen da.

Horia, korala, horixka, berdea eta morea bezalako kolore biziak, safarietarako erabiltzen direnekin batera agertzen dira.

Jantzietako akabatu metalizatuak, dagoeneko neguan eramaten ziren dizdirak dakartza berriz ere. Betiko urre eta zilar tonu degradatuak, kolore berriekin konbinatuak: berdea, larrosa, gorria eta urdina. Loreak eta psikodelikoak nagusitzen dira. Jantzi koloretsuekin, natura bere osotasunean nabarmenduko da. Psikodelia itxurakoek ehun lisoetan bere tokia hartuko dute.

## Koloreak eta estanpa-



## MAKILLAJEA ETA ILEA

Datorren udaberri-udako makillajeak itxura frexkoa, naturala eta femeninoa ematen dio emakumeari.
Egunez makillaje arin eta sinpleak erabiliko dira, oinarrian terrakota koloreko hautsak, masailetako kolorete pixka batekin lagunduta. Efektu polita lortzeko, hautsak brotxa batekin emanen dira, eta azken ukitua, koloretearekin lortzen da, masailak nabarmenduz kolore gorrixkarekin.
Udako gauetan, begiak itzal frexkoekin pintatuko dira, turkesa edo berdeekin. Begirada indartzeko maskara bat ematen ahal da, betileak banatu eta sekulako bolumena lortzeko.

Ilea mugimendu aunitzekin eramanen da, naturaltasuna lortzeko markatuta egon gabe. Ile-bildu nahasiak, orrazkera deseginaren itxura dutenak eta informalak nagusituko dira. Argitasuna ere ilaje edo adatsetan agertuko da, marroiatik hasi eta urre kolore edo horietara doazen kolore aukerekin.



Orrazkera informalak nagusituko dira



Lore estanpatuak nagu-

## BAINUJANTZIAK

Denboraldi honetako bainurako arropa, forma, estanpatu eta koloreengatik nabarmenduko da. Emakumeentzako, lore estanpatuak dira garrantzitsuenak. Bainujantziei lentejuelak eta apaingarriak gehitzen zaizkie. Berrikuntza galtzetan dago, goiko eta beheko zatiak ez dira bikinia bezalakoak, ezberdinak dira. Goitiko estanpatua eta behekoa ezberdinak dira, eta bi zati hauek fusionatzen dituen xehetasun bat izanen dute. Bainujantzietan mozketa garbiak edo tiranteak agertuko dira.



















## GIZONEZKOAK



Azken urteetako bide beretik, bakeroak nagusituko dira gizonezkoen modan. Baina kamiseta, alkondara eta poloetan kolore eta estanpatuek nabarmenduko dira.

Gero eta ausartagoak izaten hasiak dira mutilak eta diseinatzaileek ere konbinazio ausartak egiten dituzte.

Piratak, linozko galtza laxoak, bakeroak, galtza motzak... dena eraman ahal izanen da aurten. Baina ahal baldin bada kolore ausartekin.

Koloreen aldetik, berdea, horia, urdina, gorria,... hau da kolore biziak erabiliko dira eta estilo etnikoekin gehien bat.



Kolore biziak eta marrazki etnikoak

## LENTZERIA

Barneko arropetan sentsazio eta giro ezberdinak daude gizonentzako: naturala, sport, sentsuala, dotorea, dibertigarria, freskua, alaia... Bakoitza memento egoki eta ezberdinetan erabili ahal izateko.

Algodoi, lycra, enastan eta mikrozuntzezko ehunetan kolore eta era ezberdinetakoak daude pertsonaren izakera eta ausardiaren arabera erabili ahal izateko.



## ILEA

Mutilek euren alde femeninoa berreskuratuko dute. Orrazkera erabat femeninoak jarriko dituzte. Azpimarratzeko: Kopetan ile luze-luzeak jarriko dituzte, aurpegia estaliz. Uda gerturatzen denean, ile argitzea izan ohi da joera eta kolore argiak nagusituko dira, horia adibidez.



Ile mozketa eta orrazkera ausartak erama-






























# HAURRENTZAKO MODA

Azken urtetan haurrek helduen modari jarraitzea gustokoa dute eta udaberri-uda honetan ere ez da ezberdina izanen. Neska nahiz mutilentzako piratak izanen dira bilduma berriko izarrak, horixka, berdea edo larrosa tonuetako jantziekin nahastuta.

Neskentzako tonu larrosa edo berdeko lore estanpatuak proposatzen ditu, Andaluziako estilora, fondo gorriaren gainean orain txuriekin nahasten direnak. Estanpatu hauek gona, galtza eta topetan agertzen dira, proposamen koordinatu eta aldakorra osatuz.

## Haurrek helduen modari jarraitzen



Lur eta kaki tonuak nagusi dira haurren jantzietan eta formari dagokionez, estilo informalenari jarraitzen diote. Horixka edo txuriarekin konbinatuz udako ukitua ematen diote proposamenari.
Denim izeneko ehuna izanen da nagusienetako bat, betiko kolore urdinean edo askoz ere koloretsuagotan: fluor atzerapuntadekin, kremailera handiekin, kolorezko gomekin... Galtza, bermuda eta alkadoretan ehun teknikoak erabiliko dira. Top eta kamixeten arintasuna lortzeko, kotoiaren antzeko ehun naturalez gain, bere konposizioan lycra erabiliz erdiesten da.



Estanpatuak eta kolore bixiak ikusiko


















# OINETAKOAK



## Emakumeak

Denboraldi honetan lau joera ezberdinetan oinarritutako moda agertuko zaigu: mediterraneokoa, koloniala, etnikoa eta koloretsua.



Kolore bixi-bixiak ikusiko dira oinetakoetan

Garaiari dagokionez, modari jarraitzeaz gain freskotasuna ere ematen dutelako, sandaliak dira emakumearentzako oinetakorik gogokoenak. Kolekzio berrietan emakumearen figura estilizatzen duten sandalia, plataforma eta ezpartzinak orkatilara lotzen diren zintekin agertuko dira.

Kolore metalizatuak aunitz ikusiko dira udan: zilarra, burdingorria eta burdinoria edo brontzea. Kolore aukera zabala da eta arroparekin konbinatzeko aukera handia ematen du.

## Gizonak

Zola gutiko oinetakoak nagusituko dira gizonetan. Koloreek ere zer erran nahi haundia izanen dute.
Sandaliek eta zuekoek ere garrantzi handia izanen dute.
Informal edo sport ikutua duten zapatak ere ikusiko ditugu.

## Haur eta gaztetxoak

Munduan ematen diren joerei jarraituz, material ezberdinak erabiliko dira: ehun loratuak, bordatuak, trentzatuak...
Koloreari dagokionez, limoi berdea, larrosa, urdina, fuksia eta txuria erabiliko dira gehien Udaberri-udako modan.



## IKASTAROAK

# Excel ikastaroa antolatu da Cedernaren Alkaiagako bulegoan

### Apirilaren 19tik maiatzaren 24ra emanen da

**ttipi-ttapa**

Cederna-Garalur elkartearen laguntzaz UGT eta IFESek INAFRE 2006 programaren barrenean ikastaro subentzionatuak antolatu dituzte. Ekintza hau Nafarroako Enplegu Bulegoak sustatua da eta Europako Gizarte Fondoak kofinantziatua %45ean. Ikastaroak, bertzeen kontura lan egiten ari diren edo azken urtean Nafarroako enpresaren batean, lehentasunez enpresa ttiki edo ertainen batean, beren lanpostua galdu duten langileei, azken urtean Nafarroan lanean ari diren edo lan egin duten autonomoei, eta administrazio publikoetako aldi baterako langileei zuzenduak daude.




**Kalkulu-orriak egiten ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek.**

Honela, Cederna-Garalurek Alkaiagan duen bulegoan, Excel kalkulu orria, 50 orduko ikastaroa eginen da apirilaren 19tik maiatzaren 24ra, astelehenetik ortzegunera, arratsaldeko 6:30etatik 9etara.

Informazio gehiagorako edo izen emateko, 948 625122 telefonora deitu eta Begoñaz galdetu behar da edo 948 625132 fax zenbakira eskaria egin, goizeko 9etatik 2etara. Taldean gehienez 15 lagun onartuko direnez, izen ematea lehenbailehen egitea komeni da.

## DONEZTEBE

# Trafiko arazoak aztertzeko bi enpresa kontratatu dira

**ttipi-ttapa**

Doneztebeko Udalak hirigintza lanetan adituak diren bi enpresen zerbitzuak kontratatuko ditu, trafiko arazoak moldatzeko soluzio bila. Bi enpresak esperientzia handikoak eta guziz independienteak dira eta beraien lanarekin, komertzianteek egindako idatziari eta eskaerei erantzun nahi die Doneztebeko Udalak. Jose Cruz Irigoien alkateak aipatu duenez, *«bi enpresa ezberdin kontratatu dira, adituen bi iritzi izateko, beti bat baino hobea izanen baita. Gero, hauen txostena daukagunean, merkatari elkartearekin bilduko gara solasteko; baina, seguruenik, teknikoek erraten dutena izanen da herriarendako onena eta horrekin segituko dugu aitzinera».*

ELGORRIAGAKO BAINUETXEA

· 60 LOGELA BIKOITZEKO HOTELA***
· 240 LAGUNENDAKO BAINU-EREMUA
- Sauna, bainu turkiarra, masaia
- Bizkortze terapiendako igerilekua
· JATETXEA eta KAFETEGIA
· LIBURUTEGIA eta HAURTZAINDEGIA
· URAREN MUSEOA eta URAREN BIDEA




Zimentazio arazoengatik lanak geldituak egon baldin badira ere,
berriz ere baimen guziekin lanean hasteko prest gaude

GOIZUETA

# Inguruko herriekin elkarlanean emanen ditu Udalak hainbat zerbitzu

## Musika Eskola, zabor bilketa eta Gizarte Zerbitzua oraingoz



UTZITAKO ARGAZKIA

**Bortzirietako eta Malerrekako bertso eskoletako ikasleek topaketa egin zuten Goizuetan martxoaren 17 eta 18an. Bertso-eskolen eguneko ekitaldiak prestatu zituzten ostiralean, eta larunbatean, gosaldu eta gero, Goizuetako bertso-eskolarekin ezagutza jolasak, bertso saioa eta bazkariaren ondotik, Atarrabian egin zen Nafarroako bertsolari txapelketako saiora joan ziren.**

**Esteban AROTZENA**

Lekunberri, Araitz, Arano, Areso, Betelu, Larraun, Leitza eta Goizuetako Herriko Etxeetako ordezkariekin lan batzordea osatu zuten orain dela hilabete batzuk udal zerbitzuak hobekiago antolatu eta ahal den neurrian emateko aukerak aztertzeko.

Herri hauetan ematen diren zerbitzu ezberdinen azterketa egin ondoren, Musika Eskolara, zaborren bilketa eta tratamendura eta Gizarte Zerbitzura bakarrik zabalduko da oraingoz elkarlana. Nafarroako Gobernuari eskatu zaio berari dagokion dirulaguntza, eta Lekunberriko Herriko Etxean zentralizatuko dira aipatutako zerbitzuak. Biztanleen kopuruaren arabera ordainduko du herri bakoitzak.

### *Hegaztien errolda*

Udalak jakinarazi duenez, hegaztien jabe diren herritar guziek Herriko Etxera joan beharko dute apirilaren 28a baino lehen. Nafarroako etxe-hegazti guztien zentsoa egin nahi omen du Gobernuak berehala, azken hilabete hauetan hain ezagun egin zaigun gripearen kontrako neurri bezala.

### *Zaharren Elkartekoen ekitaldiak*

Herriko Zaharren Elkartekoek Kastejon eta Argetasko Senda Viva parkea bisitatuko dituzte apirilaren 4an eginen duten bidaian. Hilabete bereko 20an berriz, yoga egiten duten taldeko 33 lagunek erakustaldia emanen dute Beran, inguruko herrikoekin batera. Egunpasa handi baten barreneko ekitaldia izanen da hau. Berri hauetaz gain, oroitarazi, ostegunetatik igandetara irekitzen dela orain ere Zaharren Egoitza, 17:00etatik 21:00ak bitarteko ordutegian. Komisio edo lan talde berria hautatu dute elkartekoek, Anttoniko Apezetxeak betetzen duelarik presidente postua.

ARESO

# Ludoteka lanean hasi da astean bi orduz




ARGAZKIA: JUANA MARI

**Herriko izenaren errotulo berria jarri dute. Aspaldikoa kendu eta orain dagoen bezelaxe jarri dute Nafarroko armarria. Aurrekoak Franco garaiko laudea zeukan eta aspaldiitik onartuta zegoen armarrian kateak eta koroia soilik azalduko zirela.**

**Juana Mari SAIZAR**

Ludotekaren asmoa egia bihurtu da. Astean behin eta 2 orduz monitorearekin batera, martxan jarrito da «Jolastu eta bakea eraiki» proiektua. Eskolako eremuan egingo dira aktibidadeak, eguraldiaren arabera, barnean edo kanpokaldean. Jolasaren hamar balioak ezagutuko dituzte: plazerra, askatasuna, hezkuntza, dibertsitatea, integrazioa, sormena, gatazka gainditzea, partehartzea, lankidetza, kulturartekotasuna… hau dena bi esaldietan bildu daiteke, *«Hobe jolastea jokatzea baino»* eta *«Hobe erronkak gainditzea besteak gainditzea baino»*. Proiektu honen bultzazaile bat Kometa da, hau joku kooperatiboen etxea, taillera eta jolas etxea da. Aurrerantzean hemengo bazkidek izatea du helburu , materialak, idea berriak eta beste trukatzeko.

### *Koipua errekan*

Gorritik Aresora doan erreka batean koipu izeneko animalia aurkitu omen zuten. Erreketarako oso kaltegarriak omen dira, erraz ugaritzen direnak. Erreketan bizi eta hango landare eta zaina guztiak mozten dituzte. Erreka edo ibaietan ikusiz gero, garrantzitsua da udalari jakinaraztea, behar diren neurriak harzeko.

## LEITZA

# Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzat ludoteka ireki da

Euskara Zerbitzuak eta Udalak Dindaia Fundazioaren laguntza izan dute

ttipi-ttapa

Hamabi urte arteko haurrentzat ludoteka ireki dute martxoaren 27an udaletxeko lehen solairuan, Euskara Zerbitzuaren eta Udalaren eskutik. Haurrek jostatzeko leku berezirik ez zuten orain arte eta astelehenetik aurrera, horretarako aproposa den gunea ireki da. Momentuz, apirilean eta maiatzean irekia egonen da, baina heldu den ikasturtean urrirako irekitzea espero dute. Izena eman nahi duten haurrek 10 euroko matrikula ordaindu behar dute.

Jostatzeko txoko hau antolatzeko haur eta gaztetxoen aisialdian aditua den Dindaia Fundazioaren laguntza izan du Euskara Zerbitzuak. Jostaketaren bidez haurren heziketari eta formakuntzari bultzada emateko lekua dela uste dute antolatzaileek. Ludotekan, adinaren araberako bi talde eginen dituzte, bost urte artekoak alde batetik eta 6tik 12 urte artekoak bestetik, *«bakoitzari dagokion arreta maila eskaintzeko helburuarekin»*. Talde bakoitzak bere ordutegia izanen du.




ARGAZKIA: ONDIKOL

### *Leitzarrak Haur Kantari jaialdian*

**Aurtengoan txapelketaren ordez Haur Kantari jaialdiak antolatu dira, baina horrek ez du leitzarren partehartzea murriztu. Martxoaren 18an Elizondoko Lur diskotekan egindako jaialdian, herriko bi talde eta Garazi Erbiti bakarlaria aritu ziren kantari. Taldeetako bat ageri da argazkian.**

### *Angel Alduntzin txistularia gogoratu zuten*

Martxoaren 12an, emanaldi berezia eskaini zuten hemezortzi txistularik, 50 urtez herriko txistulari izan ondotik, duela 25 urte hil zen Angel Alduntzinen omenez. Hiruzpalau belaunaldiko txistulari, danbolin-jole eta atabalariak bildu ziren Karrapean. Txistu hotsekin batera, salda beroa eta txistor egosia ere banatu zuten. Hainbat jota, porrusalda eta bertze jo zituzten Alduntzinen estilora, hau da, azkar eta bizi-bizi. Dantza egiteko aukera ere aprobetxatu zuen koadrila batek eta hantxe ibili ziren krixkitinak joz.



## PERTSONAIA

**Micaela ALDUNTZIN**

### 101 urteko leitzarra Argentinan saritua

Micaela Alduntzin, 101 urteko leitzarra, Argentinako Ayacuchoko «Euskal Odola» Euskal Etxeko Ohorezko Bazkide egin zuten martxoaren 17an. Micaelaren arbasoak Eztebeneko bordakoak ziren. Miguel Alduntzin eta Maria Paz Sukuntzaren alaba da. Aita, Uruguain jaiotakoa izanagatik euskal jatorrikoa zen, 20 urtetan Euskal Herrira itzuli zen eta bere emazte izanen zen Maria Paz ezagutu zuen Leitzan. Micaela jaio eta honek lau hilabete zituenean Argentinara joan ziren. Micaela 1927an ezkondu zen leitzar jatorria zuen Joakin Zabaletarekin eta 7 seme-alaba, 14 biloba, 28 birbiloba eta, oraingoz, hereniloba baka-






BAZTAN

# EAren aldeko botuekin onartu zen aurtengo udal aurrekontua

UPNko zinegotziek ez zuten bozkatu nahi izan

ttipi-ttapa

Baztango udal aurrekontua onartu zen martxoaren 17an EAko zortzi zinegotzien aldeko botuarekin eta UPNko bortzen abstentzioarekin. Azken hauek ez zuten bozkatu nahi izan eta pleno-aretotik ateratzeko asmoa ere azaldu zuten, baina idazkariak jarrera hori ere abstentziotzat hartuko zela jakinarazi zien. UPNk batzarraren aitzinetik ere iragarri zuen jarrera hau hartuko zuela. Izan ere, beraien ustez, *«ez da guziz legala aurrekontua onartzea, langilegoa zein izanen den onartu gabe»*. EAkoek, aldiz, beraiek ere legekontsultak egin zituztela jakinarazi zuten eta horren arabera, langileekin negoziatzen den bitartean, afera ez gibeleratzeko aurrekontuak onartzen ahal dira. Honela, legezkoa izateko, joan den urteko langilegoaren luzapena egiten da eta aurtengoa behin betikoz onartzen denean diru-sail handiagoa beharko balitz, aldaketa sartuko litzateke udal aurrekontuan.

Honela, udal aurrekontua 9 milioi eurokoa izanen da aurten, Francisco Joaquin de Iriarte erresidetziarena 1,88 milioi eurokoa eta Baztan Ikastolakoa 489.229 eurokoa, guziak gastu eta sarreretan berdinduak. Inbertsioetan 3,53 milioi euro joanen dira, aurrekontuaren %39,25.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Moda desfila arrakastatsua*

**Martxoaren 19an Lur dantzalekuan egin zen moda desfilea ikustera bederatzirehun lagun hurbildu ziren. Inguru honetako hainbat arropa eta oinetako denda eta ilepaindegien produktuak eta lana ikusgai izan ziren oholtzan.**

### *Gimnasio berria Baztan Ikastolan*

Baztan Ikastolak gimnasio berria inauguratu zuen martxoaren 19an. Merkatuzelaiko eraikinean, El Pilar ikastetxe zaharreko igerilekua moldatzen 69.000 euro gastatu dira eta oso-osorik Udalbide Elkarlan Elkarteak ordaindu ditu. Inaugurazio ekitaldian, elkarte horretako presidentea, presidente ordea eta kudeatzailea izan ziren, baita juntakide diren Laura Igantzi Lesakako zinegotzia eta Vicente Arotzena Arantzako alkatea ere, Baztan balleko udal agintariekin eta EAko Maiorga Ramirezekin batera. Miguel Alberrok, Baztan Ikastolako presidentea izandakoak, gimnasio berria bedeinkatu zuen eta gero, kantuak eta dantzak izan ziren.



PERTSONAIA

Ane BALLARENA

## Iñigo Arista lehiaketan saria eskuratu du idazlanean

Elizondoko Baztan Ikastolako Ane Ballarena Añorgak, 6. mailako ikasleak "Iñigo Arista" erakundeak antolatutako lehiaketan idazlanean saria lortu du, Aralarreri buruzko idazlan batekin. XXV. edizio honetan 4.000 ikaslek baino gehiagok hartu du parte, haien artean 30 sarituak izan direlarik. Anek, bere idazlana irakurtzeko aukera ere izan zuen sari banaketan.






## BAZTAN

# Nafarroako Bertsolari txapelketako finala larunbatean izanen da

18:00etan hasiko da Lur diskotekan

**ttipi-ttapa**

Larunbat honetan, apirilaren 1ean, 18:00etatik aitzinera jokatuko da Elizondoko Lur diskotekan Nafarroako bertsolari txapelketa nagusiaren finala. Bertan izanen diren zortzi protagonisten izenak jakinak dira: beraien saioak irabazita zuzenean sailkatu dira Estitxu Arozena, Joxe Juan Zubieta «Etxabe» eta Xabier Silveira lesakarrak; puntuazioaren arabera, berriz, Jon Barberena elizondarra, Julen Zelaieta beratarra, Erika Lagoma eta Iñigo Olaetxea lesakarrak eta Gorritiko Julio Soto izanen dira oholtzan. Atarrabiako final aurreko saioan maila ederrean aritu zen Xabier Silveira, eta txapela kendu nahi dionak arras ongi aritu beharko du. Baina Barberena ere ongi aritu zen eta herritarren animo eta laguntza berekin izanen ditu.

### *Lekaroz-Elizondo Institutuko aurrematrikulazio solasaldiak*

Lekaroz-Elizondo Bigarren Hezkuntza Institutuan, 2006-07 ikasturterako aurrez izena emateko kanpainaren barrenean, informazio saioak antolatu dituzte. Lekarozko ikastetxeko ikusentzunezko aretoan eginen dira solasaldi hauek. Apirilaren 4an, asteartean, solasaldiak euskaraz eginen dira: 16:00etan DBH lehen maila egin behar dutenentzat, 17:00etan DBH bigarren mailakoentzat, 17:30etan DBH hirugarren mailakoentzat eta eta 18:15etan DBH laugarren mailakoentzat. Apirilaren 5ean, asteazkenean, solasaldiak gazteleraz eskainiko dira, maila berentzat eta ordutegi berean.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### *Antxitoneako paleta-goma txapelketako finalak*

**Martxoaren 18an jokatu ziren Antxitonea trinketeko paleta-goma txapelketako lehen eta bigarren mailako finalak. Lehen mailan, Migeltxo Pruañok eta Kiko Jaenek 40-28 irabazi zieten Andres Burgete eta Alejandro Galarregiri. Hain zuzen, final hau izan zen Elizondoko trinkete pilotari onena izan den Alejandro Galarregiren despedida ofiziala. Bigarren mailan, Jon Franzesenak eta eta Mikel Ballarenak 40-26 irabazi zieten Txema Garaikoetxea eta Richard Altzuguren-i.**

### *Baztandarren Biltzarraren ikastaro arrakastatsua*

Martxoan oinarrizko sukaldaritza ikastaroa egin da, Baztandarren Biltzarraren eskutik. Bertan, 15 pertsonek parte hartu dute, Sagrario Bikondoa sukaldaria irakasle zutelarik. Ikastaro hori akitzean bertze bi burutuko dira: «Etxeko oinarrizko konponketak» eta «Masajea». Bietan plaza guztiak erabat beterik daude.



ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO


MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

LAISTER Elizondon Babes Ofizialeko Etxebizitzak eginen dira, araubide orokorrekoak. Baita Prezio tasatuko etxebizitzak (VPT) eta Libreak ere.
Promociones Lindutx Baztan, S.L.
☎ 676 509 312 • 948 581 300

OSPAKIZUNAK

# Nafarroaren Eguna girotzeko ekitaldiak antolatu dituzte Baigorrin

## Apirilaren 15ean «Buru Haundiak» ikuskizuna eta 29an Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua




UTZITAKO ARGAZKIA
**Apirilaren 15ean, Plaza Xoko gela berrian eskainiko den «Buru Haundiak» ikuskizuna iragartzen duen kartela.**

**ttipi-ttapa**

Urtero bezala, apirileko hondar igandean ospatuko da Baigorrin Nafarroaren Eguna. Azken urteetan, egun horren inguruan kulturaldia antolatu du Basaizea elkarteak eta aurten ere hainbat ekitaldi izanen dira. Honela, apirilaren 15ean, ibiakoitzez edo larunbatez, Buru Haundiak izeneko antzerki-bideo-musika-marrazki-bertso emanaldi ironikoa eskainiko da arratseko 8etatik aitzinera Plaza Xoko gela berrian. Ikuskizun honetan, Pantzo Hirigaray, Asisko Urmeneta, Sauveur Falxa, Pierre Larre “Partza”, Amets Arzallus, Maite Dunat, Maialen Lujanbio, Helene Charriton, Yvonne Pochelu eta Beñat Bidegain aritzen dira zuzenean tauletan eta bertze hamabortz bat lagun bideo eta gela jokaldietan. Musika, Buru Haundi Sound System taldearen eskutik dator. Txartelak salgai daude 10 eurotan martxoaren 31 artio Baionako Elkar megadendan, Donibane Garaziko Irulegiko Irratian, Elizondoko Fantxiken eta Baigorriko Bixentainian. Ondotik karioago salduko da.

Bertzalde, apirilaren 29an, Nafarroaren Egunaren bezperan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariek Baigorriko gaiteroek lagundurik kontzertua eskainiko dute 21:00etan Baigorriko elizan. Lehen aldikotz elkarrekin eskainiko dute emanaldian, Mozart, Arriaga, Bachebel eta Romanoren konposizioak emanen dituzte.

Kasu honetan ere, txartelak salgai egonen dira 10 eurotan martxoaren 31 artio Baionan eta Iruñan Elkar megadendan, Donibane Garazin Irulegiko Irratian, Elizondon Fantxiken eta Baigorrin Bixentainian. Ondotik karioago salduko da Baigorrin.















## SENPERE

# Hiru etxetik batek Bizi Garbiaren konpostagailu bat baliatzen du sukaldeko eta baratzeko zikinak biltzeko

Zortzi kide berri sartu dira Amorroin Kofradiaren bestan



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**37 kofradiko 150 kide bildu ziren Ibarrungo Boneteian martxoaren 12an.**

**Franck DOLOSOR**

Zikinen bereiztea eta berziklatzea gustatzen zaiote senpertarreri. 2000garren urteaz geroz, konpostagailuak banatzen ditu Bizi Garbiak, gure eskualdean hondakinez arduratzen den elkargoak. Bizi Garbiaren eremuan, Basusarritik Zugarramurdiraino, 1620 etxek konpostagailu bat dute jadanik sukaldeko edo baratzeko zikinak biltzeko, hau da %20. Portzentai hori haundiagoa da Senperen hiru etxetik batek duelakotz konpostagailua. Tresna urririk eskuratzen ahal da galdea eginez Bizi Garbiari. Haurren sentsibilizazioa haunditu nahi du orain elkargo hunek. Bizi Garbiak 1500 liburuxka atera ditu bereiztea eta berziklatzea hobeki esplikatzeko gazteeri. Mila liburuxka erdaraz dira eta bertze 500 euskaraz.

Gazteeri erakutsi nahi zaie denek zerbait egin dezakegula inguramena zaintzeko eta natura laguntzeko. Liburuxka hauek akademia ikuskaritzak eta Uztaritzeko euskal kultura erakundeak plazaratu dituzte Bizi Garbiarekin elgarlanean.

### *Amorroin Kofradiaren besta*

Senpereko amorroin kofradiak zortzi kide berri ditu martxoaren 12az geroz. Hauen artean daude Jean Michel Salaberri, sortzez senpertarra eta Donibane Lohizuneko "kortsarioa" dena eta Olivier Debetencourt agronomia ingi-nadorea eta Senpereko INRAko langilea. Aurten, 37 kofradik parte hartu dute amorroinaren bestan. Lehen aldikotz, Bordele, Cognac, Medoc, Tours eta Mediterraneoko lurraldeak ordezkatuak izan ziren.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

**Aintzirako lanak berantarekin hasi dira. Martxoaren 10a eta 11 arteko gauean, euri ainitz egin zuen eta kasik hutsa zen lakua denbora laburrean bete zen berriz. Aintzira berriz husteko ura kentzeko tresna eta hodiak baliatu dituzte. Lanak aste bateko berantarekin hasi dira. Egun guziz lakuaren itzulia egiteko usaia zutenek ibilbidea aldatu behar izan dute lanen denboran ezin baita itzuli osoa egin.**



SARA

# Gaztetxearen 15. urteurrena ospatuz kontzertu mundiala apirilaren 14an



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE
**Sarako BKBO taldeak irekiko du apirilaren 14ko kontzertua.**

Laetitia eta Sandrine

Haren 15 urteak ospatzeko gaztetxeak programa berezi bat prestatu du. Joan den urrian kide ohi eta berrien arteko eguna antolatu zen. Eguerditan 150 bat pertsona elkartu ziren giro onean. Arratsaldean, gaztetxeko belaunaldi zahar eta berriko hamar bat gazteek eskainitako antzerkira eta poteora 300 pertsona hurbildu ziren. Bainan urtemuga honen ekintza aipagarriena apirilaren 14an iraganen da. Horretarako gaztetxeko kideek kontzertu mundiala antolatu dute.

Clawfinger gaueko izar nagusia izanen da dudarik gabe. Haiez gain BKBO gaztetxeko taldeak idekiko du gaualdia. La Troba Kung-Fu kataluniar taldekoek hartuko dute segida. Ondotik Zpeiz Mukaki dantza txaranga tropak sorkuntza eder bat aurkeztuko du, Bad Sound System-ek bukatu aintzin.

- BKBO: saratar kinki-kor taldea. Anestesia moduko metal gogorra eskaintzen duen laukotea da.

- La Troba Kung-fu: musikari katalandar ezagunez osatutako taldeak (ex Dusminguet, ex Jarabe de palo, ex Amparanoia) rumba, kumbia, besta eta dantzarako aire aproposak joko dituzte.

- Clawfinger: aurtengo sentsazioa. Talde suediarrak Sarari sua emateko gaztetxearen komita onartu du. Europar bira erraldoian hiriburu edo hiri nagusiak bisitatuko ditu baita Sarako gaztetxearen 15 urteak ospatuko. Makina eta elektro doinuak metal kaineroari nahasi zizkioten lehenetarikoak izan ziren 1994ean.

Talde mitiko bat pasako da Saratik, ez zazuela huts egin!!!

Tokiak salgai dira elkar megadenda guzietan (Baiona, Irun, Donosti, Bilbo, Gazteiz, Iruña eta Tolosa), Tana ostatuan, sarako herriko ostatuan eta interneten bidez ticket net, fnac edo virgin web gunetan.

### *Errugbia*

Sarako errubi senior taldea Hossegor-en kontra aritu da, erreserbak irabazi du 10-17 bainan lehenak galdu du 16-10. Apirilaren 1ean Narosse taldearen aurka jostatuko dute kanpoan. Bertzalde apirilaren 2an, elkarteak antolatzen du ateraldi bat Donostin; eguerditan sagarnotegi batean bazkalduko dute eta ondotik Anoeta zelaiera joanen dira BO eta Sale inglesen arteko matxa ikusterat.

### *Gasnategia Saran*

Martxoaren 18an ideki da EARL Harpeak gasnategia, behi gasna eta etxeko yogurtak egiten dituzte. Gasnak eta bertze esnekiak deskubritzen ahal dira, saltegian, astelehen, asteazken eta larunbatetan 14etatik 17ak arte.

Helbidea : Xalarriko borda tel: 05 59542181 edo 06 75580540.


Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



## EZKONTZAK

**Jose Ramon Zubieta Izurrategi** eta **Arcenia Sanchez**, Bera eta Errepublika Dominikarrekoa, martxoaren 8an.
**Fernando Korta Altzate** eta **Amaia Bikuña Arregi**, Berakoak, martxoaren 18an.
**Carlos Iturbe Soubelet** eta **Maria Carmen Saenz Lazkano**, Leitzakoak, martxoaren 10ean.
**Ignacio Atondo Ubera** eta **Maite Elgorriaga Errandonea**, Eibar eta Berakoa, martxoaren 10ean.



## SORTZEAK

**Mikel Leonet Arozena**, Aranokoa, otsailaren 10ean.
**Izaro Larrogue Altzuarte**, Almandozkoa, martxoaren 12an.
**Xalbat Altzugarai Ariztegi**, Elbetekoa, otsailaren 20an.
**Aitor Lizartza Rodriguez**, Leitzakoa, martxoaren 8an.
**Oihan Arrondo Uribesalgo**, Leitzakoa, martxoaren 2an.
**Ilargi Martinez Leitza**, Iturengoa, martxoaren 1ean.
**Patxi Oiartzabal Revuelta**, Doneztebekoa, martxoaren 1ean.
**Manex Sarasola Zelaieta**, Igantzikoa, martxoaren 14an.
**Guy Chloé**, Sarakoa, martxoaren 13an.
**Mikel Lorente Agirre**, Gaztelukoa, martxoaren 6an.
**Aitor Lorente Agirre**, Gaztelukoa, martxoaren 6an.
**Yenay Lekuona Elizondo**, Urrozkoa, martxoaren 10ean.



## HERIOTZAK

**Antonio Ameztoi Irisarri**, Etxalarkoa, martxoaren 13an, 86 urte.
**Maria Pilar Eizagirre Ribed**, Elizondokoa, martxoaren 13an, 79 urte.
**Epifanio Etxeberria Jorajuria**, Lesakakoa, martxoaren 14an, 80 urte.
**Jon Oskoz Etxandi**, Elizondokoa, martxoaren 15ean, 20 urte.
**Jose Maria Goienetxe Iturria**, Etxalarkoa, martxoaren 16an, 85 urte.
**Consuelo Altzuart Etxaide**, Arraiozkoa, martxoaren 18an, 65 urte.
**Martin Oronoz Zabaleta**, Leitzakoa, martxoaren 18an, 93 urte.
**Anne Marie Dutournier**, Sarakoa, martxoaren 16an, 53 urte.

---



### Jose Luis IPARRAGIRRE ZUBIETA

*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garen artean*
*ez zaitugu ahaztuko.*

**II. URTEMUGA**

**Apirilaren 22an, Etxalar**
**FAMILIA ETA BILOBA AIMAR**



### Txomin BORDA DUHALDE

**I. URTEMUGA**

*Zoragarria izan zinen zauntu*
*zintugunendako.*
*Orain hutsune bat dago gure artean*
*ta zutaz oroitzean begietara*
*nigarra etortzen zaigu.*
*Gure bihotzean zaude Txomin!*
*Zure irriaren oroitzapenak betetzen*
*gaitu hutsunea, gau ilunean argiak bezala.*
*Ez datzugu atzenduko.*

**Fco. Bengoetxea eraikuntzako langileak**



### Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA

**1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra**

**IV. URTEMUGA**

*Udaberriak bizia ekarriz*
*Zure askatasun modua gogoratzen du*
*Zure ametsak buruan izanik*
*Zure indarra guria egiten dugu.*

**Gurasoak eta senideak**

PILOTA

# Iñaki Otxandorena buruz buruko txapelketatik kanpo utzi dute

## Oronoz-Mugairikoaren ordez Retegi Bi sartu dute Asegarcekoek

**Aitor AROTZENA**

Apirileko lehen aste hondar honetan abiatuko da EPELek antolatutako eskuz banakako txapelketa eta Asegarcek Oronoz-Mugairiko Iñaki Otxandorena lehiatik kanpo utzi du. Bere ordez, joan den asteburuan Julen Retegi, Retegi II.aren semea, aritu zen Urberuagaren kontra, txapelketan sartzeko txartelaren bila. Erabaki honek hauts dexente harrotu du. Asegarcetik kirol irizpideak erabili dituztela diote. Otxandorenaren eskuak ukituak omen daude binakako txapelketaren ondotik, baina Iñaki jokatzeko moduan eta jokatzeko gogoz zegoen. Oronozko atzelariaren kategoriarekin, buruz buruko txapelketan sartzeko Urberuagaren kontra jokatu behar izatea bidezkoa ez zela ere adierazi dute Asegarcetik, baina, nonbait, txapelketatik kanpo uztea bidezkoagoa da. Kontuak kontu, txapelketa aste hondar honetan abiatuko da. Urberuaga eta Retegi Biren arteko irabazlea Agirreren kontra arituko da; adar horretan, Oinatz Bengoetxea leitzarra, Eugi eta final laurdenetako koxkan, Aimar Olaizola txapelduna izanen dira esperoan.




ARTXIBOKOA

**Iñaki Otxandorenak ez du banakakoan lehiatzerik izanen, Asegarceren erabakiaren ondorioz.**

Goñi III eta Leitzaren arteko partida ere asteburuan jokatuko da. Adar horretan, Abel Barriola leitzarra, Asier Olaizola goizuetarra eta Sebastien Gonzalez azkaindarra izanen dira esperoan.

Koka eta Eulateren arteko partidaren irabazleak, Beloki, Zearra eta Patxi Ruiz izanen ditu esperoan, hurrenez hurren.

Asteburu honetako azken partida, Esain eta Peñagarikanok jokatutako sailkapen partiduko irabazleak Galarza V.aren kontra jokatuko du. Irabazleak, Lasa III, Xala eta Martinez de Irujo izanen ditu esperoan eskaileran.

Finalerdiak maiatzaren 14 eta 21ean jokatuko dira eta final handia ekainaren 4an.

FLASH

### *Urrezko Aizkoran gazi eta gozoak*

Aitzinera doaie banakako Urrezko Aizkora lehiaketa. Martxoren 18 eta 19ko asteburua gazi eta gozoa izan zen eskualdeko aizkolarientzat. 18an Bakion egindako saioan Jon Rekondo leitzarrak ezustean aurrera egin zuen, azken urteetako Nafarroako final nagusian beti izaten den Barberena kanpoan utzita. 20 urteko leitzarrak etorkizun handia duela erakutsi zuen berriz ere eta hirugarren kanporaketa gainditu zuen, lehendik Esnaola eta Rodriguez bazterrean utziak baitzituen.San Jose egunean, Patxi Mindegiak, Mielen semeak, ezin izan zuen Otañoren kontrako kanporaketa gainditu Legorretan. Aitzineko astean Patxi Mindegiak lan ona egina zuen. Baina Zubietakoak ez zuen freskura hori erakutsi Legorretan eta garbi gelditu zen lan luzetarako oraindik kilo sobera dituela. Aizkolari Gazteen lehiaketan berriz, Oihan Larretxea beratarrak aitzinera egin zuen Kañamares II.a gainditu.

# Irujo eta Eulate txapeldun eskuz binakakoan

## Aimar Olaizola goizuetarra azpitxapeldun izan da Zearrarekin

**A.A.**

Juan Martinez de Irujo eta Pedro Martinez de Eulate dira Esku Pilota Enpresen Ligak antolatutako eskuz binakako txapelketa nagusiaren txapeldun berriak. Martxoaren 19an Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatutako finalean 22 eta 11 irabazi zieten Aimar Olaizola goizuetarrari eta Oier Zearrari. Gorriak 3-0 aitzindu ziren, baina hortik aitzinera partida berdindua joan zen. Gibelean ongi eusten zuten bi atzelariek eta aitzinean, Irujok tantu batzuk egin zituen, baina bere bolea batzuk txapara ere joan ziren. Aimarrek tantu gutti egin zituen aitzinean, baina defentsan ongi moldatzen ari zen.

Aimar eta Oier 11 eta 9 irabazten jarri ziren, baina hori izan zen gorrien azkeneko tantua. 10 eta 11koa egin zuten urdinek, Aimarren huts baten ondotik eta hor hasi zen Irujoren erakustaldia. Eulatek lan ona egin zuen gibelean eta bigarren erdi honetan ez zuen pilotarik galdu. Aitzinean, Irujo bikain ibili zen eta Aimarrek ez zuen egunik onena izan.

Azkenean, 11 eta 22 Irujo eta Eulaterentzat. Martinez de Irujok binakako hiru txapelketetan parte hartu du eta hiruetan finalean izan da, bi irabaziz gainera. Eulatek urte gehiago daramazki profesionaletan, baina eskuz binakakoan izan duen lehen partehartzean txapela janztea lortu du. Aimar Olaizolak bigarren finala zuen eta bigarren aldiz galdu egin du. Beraz, eskuz banakakoa eta lau terdikoa irabaziak baldin baditu ere, binakako txapel hori falta du oraindik. Zearrari dagokionez, bere lehen finalean ezin izan zuen txapela jantzi.

PILOTA

# Ballarena, Urtasun eta Etxenikek irabazi dute VII. Paxaka txapelketa

## Finalean 9-7 irabazi zieten Urrutia anaiei eta Elizaintzin-i

A.A.

Mikel Ballarena elizondarrak eta Joseba Urtasun eta Gillermo Etxenike iruritarrek osatutako hirukoteak irabazi zuen Baztan-Errekako zazpigarren paxaka txapelketa. Iruritako Aranabia pilotalekuan martxoaren 11n jokatutako final ikusgarrian 9 eta 7 irabazi zieten Iruritako Oskar eta Igor Urrutia anaiei eta Andres Elizaintzineri.

Txapelketako bi hirukote indartsuenak ailegatu ziren finalera. Azkenean azpitxapeldun izan direnak, hasierako faseko partida guziak eta finalerdia irabaziak zituzten. Txapeldun izan direnak, berriz, hasierako fasean bakar bakarrik Urrutia anaien eta Elizaintzinen kontra galdu zuten eta gainerako partida guziak aisa irabazi zituzten, arerioei sei joku egiten utzi gabe.

Finalean, beraz, lehen faseko errebantxa hartu zuten Ballarena, Urtasun eta Etxenikek eta 9 eta 7 irabazi zieten Urrutia anaiei eta Elizaintzineri. Partida ikusgarria izan zen eta azkenera arte ez zen erabaki.





ARGAZKIAK: ONDIKOL

**Goitian, zazpigarren paxaka txapelketako azken bi partidetako protagonistak. Beheitian, Mikel Ballarena elizondarra sakean.**

Aitzinetik, hirugarren posturako lehia ere estua, borrokatua eta estua izan zen. Hemen ere, Iruritako bi hirukota aritu ziren: Iñaki Etxandi, Martin Alfaro eta Miguel Bidegain alde batetik eta Iñaki Zabaleta, Xabier Ripa eta Francisco Santxotena bertzetik. Partida honetan ere etengabeak izan ziren berdinketak. Azkenean, zortzinako berdinketaren ondotik, azken jokoa Etxandi, Alfaro eta Bidegainentzat izan zen eta 9 eta 8 irabaztea lortu zuten, hirugarren postua eskuratuz.

Azken partida hauetara ailegatu ziren hirukote guziak bertakoak izanik, giro ederra izan zen martxoaren 11n Iruritako Aranabia pilotalekuko harmailetan.

SKEET OLINPIKOA

# Erregearen Kopa irabazi du Ione Fagoagak

ttipi-ttapa

Ione Fagoaga tiralari lesakarrak, martxoaren 5ean Madrilen jokatutako Skeet Olinpikoko Erregearen Kopa irabazi zuen. Eguraldia ez zuen lagun izan marka ona egiteko, baina halere 59 plater hautsi eta lehendk ere berea zen titulua gorde zuen. Lehen itzulian 21 plater bota zituen, bigarrenean 19 eta azkenekoan 18.

Itsaso, Ioneren ahizpa gaztea duela gutti meniskotik operatua izan da eta ezin zuen txapelketan parte hartu. Udaberrian eta udan txapelketak ugarituko zaizkio Jone Fagoagari. Apirilaren 22an eta 23an Irunen jokatuko den Espainiako Kopan parte hartuko du. Orduko ahizpa ere sendatua izatea espero du. Gero, maiatzean, Kairon jokatuko den Munduko Koparako Egiptora joanen da. Sanferminetan, berriz, Mallorcara joan beharko du Espainiako txapelketarako. Hilabete berean Zagreben izanen da Munduko txapelketan. Sasoia bukatzeko, Esloveniako Europako txapelketan parte hartuko du.

Ioneren aurtengo helburu nagusia eta edozein kirolariren ametsa, 2008an Txinan jokatuko diren Joku Olinpikoetarako txartela lortzea izanen da.

# AGENDA egunez egun

## MENDI ATERALDIAK

### BAZTAN

**Apirilaren 2an** Abartanera ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.
**Apirilaren 9an** Hondarribiara ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

### SUNBILLA

**Apirilaren 2an** Sunbilla-Zumaleku-Mendaur-Illurdi-Auloa ibilbidea antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.
**Apirilaren 15ean** Lesakako Aiako Harrietara ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

### ZUGARRAMURDI

**Apirilaren 9an** Arantza-Mendaur ateraldia antolatu du Atxuria mendi taldeak.

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Apirilaren 1ean** Joseina Etxeberriaren kontzertua, 1:00etan Lur diskotekan.

### LESAKA

**Apirilaren 1ean** Joseba Irazokiren kontzertua, 22:30etan Kasinoan.

### BAIGORRI

**Apirilaren 29an** Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoak Baigorriko gaiteroek lagundurik emanaldia eskainiko dute lehen aldikotz elizan 21:00etan. Txartelak salgai martxoaren 31 artio Baionan eta Iruñan Elkar megadendan; Irulegiko Irratia, Elizondoko Fantxiken eta Baigorriko Bixentainian.0

## FERIAK

### ELIZONDO

**Apirilaren 8an** Baztango artisau produktuen feria, Merkatu Plazan 10:00etatik 14:00etara.

### LESAKA

**Apirilaren 23an** III. Erdi Aroko Feria. Xehetasunak hurrengo alean.

## TELEBISTAKO TXOKOA





ELIZONDOKO LUR DISKOTEKATIK

# Bertsolari txapelketaren finala ttipi-ttapa telebistan

Larunbat honetan, apirilaren 1ean, 18:00etatik aitzinera jokatuko da Elizondoko Lur diskotekan Nafarroako bertsolari txapelketa nagusiaren finala. Bertan izanen diren zortzi protagonisten izenak jakinak dira: beraien saioak irabazita zuzenean sailkatu dira Estitxu Arozena, Joxe Juan Zubieta "Etxabe" eta Xabier Silveira lesakarrak; puntuazioaren arabera, berriz, Jon Barberena elizondarra, Julen Zelaieta beratarra, Erika Lagoma eta Iñigo Olaetxea lesakarrak eta Gorritiko Julio Soto izanen dira oholtzan. Atarrabiako final aurreko saioan maila ederrean aritu zen Xabier Silveira, eta txapela kendu nahi dionak arras ongi aritu beharko du. Baina Jon Barberena ere ongi aritu zen eta herritarren animo eta laguntza berekin izanen ditu. Estitxu Arozena ere faboritoen artean sartu behar da beti eta bertzeak ere sorpresa emateko prest igoko dira oholtzara. Larunbateko finala heldu den astean oso-osorik eskainiko da ttipi-ttapa telebistan.

**Udaberria gozatzen Lesakan**
Apirilean hainbat ekitaldi antolatu dira Lesakan eta horren berri ere emanen dugu: apirilaren 9ko Tantirudantzatik hasi eta 23ko Erdi Aroko Azoka bitartean, izanen da bai zer ikusi ttipi-ttapa telebistan.

## DISKAK




*Chicarela*
CHICARELA
GOR DISKAK, 2006

Chicarela («liskarra», TMEO aldizkariaren hiztegi *euskalorro*aren arabera) Flitter taldeko gitarra jole den Javier Zurbanoren proiektu berria dugu, eta taldearen sorburua Javi bera duela urtebete konposatzen hasitako kantu sortan dugu. Abesti xumeak, zuzenak eta ongi taxutuak. Horietako batzuk hitz erromantiko eta kutsu pertsonalekoak, bertze batzuk, aldiz, egunerokо kontuekin trufatsu. Oilo ipurdia jarriko dizuten aire latinoak eta gitarra zorrotzez josiriko rock basatia dituzu kantuen osagaiak, isiltasunari ia tarterik eskaintzen ez dion baxu eta bateriazko oinarriak lagun. Chicarela azaltzeko bi abesti klasiko hautatu beharko bagenitu, Radio Futura-ren «Veneno en la piel» eta Judas Priesten «Breaking the law» aipatu behar dira , sendotasuna eta epeltasuna uztartzen baititu.

## BASERRIA

Datu Iturria: Nafarroako Gobernua
(Martxoaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 44,00 € (+1,00)

**Zerri gizena**
1,150 € kiloa. (+0,005)

**Zerramak:**
0,470 € Kg/bizirik. (+0,020)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 80 (=)
**1.koa** 3,58 (=)
**2.koa** 3,39 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,92 (=)
**1.koa** 3,70 (=)
**2.koa** 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 220,00 (=)
idixkoak 270,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 225,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,95/3,01
Zaldi-behorrak: 1,67/1,87
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 4,60 /5,50
8-10 kilokoak: 3,50 /4,20

## JAKIN BEHARREKOAK

# Arreta-faltarengatik nahastea

## Eskolaratutako haurren %3 eta %5ari bitartean eragiten dio



**Hiperaktibitaterik gabeko arreta-falta nesketan ageri da batez ere, lehen hezkuntza hasieran.**

Arreta-faltarengatik nahasteak eskolaratutako haurren %3-5ari eragiten badio ere, ez da beti modu goztiarrean diagnostikatzen, batez ere arreta-falta hiperaktibitaterik edo inpultsibotasunik gabe ageri denean.

Hiperaktibitaterik gabeko arreta-falta batez ere nesketan eta lehen hezkuntzako hasieran somatzen da. Arazoa zera da, auniztan neska hauek alfertzat hartzen direla, kontuan hartu gabe arreta jartzen ez badute ez dela nahi ez dutelako, ezin dutelako baizik. Arreta-falta auniztan eskolaporrotarekin lotua dago eta honenbertzez, arazo emozionalei, autoestima arazo edo antsietateari lotua.

Horregatik garrantzitsua da gurasoek, irakasleek eta haurrekin harremanean dauden profesionalek arazo honen alarma-seinale nagusiak ezagutzea, lehenbailehen detektatu eta beharrezko neurriak hartu ahal izateko familian nahiz arlo pedagogiko eta psikologikoan.

**ALARMA SEINALEAK:**

1. Auniztan ez du arreta nahikorik jartzen xehetasunetan edo eskolako lanetan edo bertze jardueretan akatsak izaten ditu bere deskuidoengatik.
2. Jokuetan arreta mantentzeko zailtasunak izaten ditu auniztan.
3. Zuzenean solasten zaionean ez duela aditzen ematen du auniztan.
4. Auniztan eskolan ez ditu aginduak segitzen eta ez ditu eskolako lanak, mandatuak eta betebeharrak akautzen.
5. Lanak eta jarduerak antolatzeko zailtasunak ditu auniztan.
6. Auniztan, buruko esfortzu jarraia eskatzen dioten lanak (eskolakoak edo etxekoak) ez ditu gustora hartzen edo alde batera uzten ditu.
7. Lanak edo jarduerak egiteko beharrezkoak dituen tresnak (jostailuak, liburuak…) galdu edo ahazten ditu auniztan.
8. Garrantzi gabeko estimuloek arreta galarazten diote sarritan.
9. Eguneroko jardueretan utzia da auniztan.

Arestian aipatu dudan bezala, zailtasunak batez ere maila akademikoan agertzen dira eta horregatik hagitz garrantzitsua da lehen hezkuntzako irakasleek eta eskolako psikologoek arazo honen ezaugarriak ezagutzea, lehenbailehen detektatu eta haurra profesional batengana bideratzeko. Honek azterketa sakona egin eta tratamendua hasteko modua izanen da. Tratamendu eraginkorrena konbinatua da: tratamendu farmakologikoa+laguntza pedagogiko eta psikologikoa.

Rakel AMIGO




# AGENDA egunez egun

### ERAKUSKETAK

#### ETXALAR

**Apirilaren 3tik 16ra** Fernandez Casas margolariaren margo lanak ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan, astetartez 16:00etatik 19:40etara eta asteburu eta besta egunetan 12:00etatik 14:00etara.

#### LESAKA

**Apirilaren 3tik 9ra** Tantirumairu dantza taldearen argazki erakusketa pleno aretoan. Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara. Igandean, 12:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

**Apirilaren 10etik 23ra** Erdi Aroko emakume-kapeluak Beti Gazte elkartean

### TAILERRAK

#### LESAKA

**Apirilaren 3 eta 24an** «Jokoak, hitzak eta sormena» haur tailerra 17:00etatik 18:00etara liburutegian, Miren Camisonek zuzenduta.

### SOLASALDIAK

#### BERA

**Martxoaren 30ean** «Como superar el duelo» solasaldia eskainiko dute Mirentxu Goienetxe, Raquel Mateo eta Ainhoa Arburuak Kultur Etxean, 19:00etan. Antolatzaila: Uxua Emakume Taldea.

### DANTZAK

#### LESAKA

**Apirilaren 9an** Tantirudantza, Tantirumairu dantza taldeak antolatuta. 11:45etan gonbidatutako dantza taldeak karrikaz karrika. 12:45etan Zubigainekoa. 13:00etan dantza saioa Plaza Zaharrean. 17:30etan haur animazioa Plaza Zaharrean, Kiki, Koko eta Moko pailazoekin.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.


**ETXEBIZITZAK**
**101.** Saldu
**102.** Erosi
**103.** Errentan emateko
**104.** Errentan hartzeko
**105.** Etxe konpartituak
**106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
**107.** Saldu
**108.** Erosi
**109.** Errentan emateko
**110.** Errentan hartzeko
**111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
**112.** Saldu
**113.** Erosi
**114.** Errentan emateko
**115.** Errentan hartzeko
**116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
**201.** Hargin/Igeltseroak
**202.** Pintoreak
**203.** Elektrizistak
**204.** Iturginak
**205.** Zurginak
**206.** Mendi lanak
**207.** Garraioak
**208.** Bertzelakoak

**LANA**
**301.** Eskariak
**302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
**401.** Eskaintzak
**402.** Akademiak

**MOTORRA**
**501.** Salerosketak
**502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
**601.** Emateko
**602.** Salerosketak
**603.** Klinikak

**DENETARIK**
**701.** Galdu / aurkituak
**702.** Salerosketak
**703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
**801.** Agurrak



**ADOS**

• **ELIZONDO.**
- Eraikuntza berriko azken pisua aparkalekuarekin salgai.
- 2. eskuko apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.
• **BERA**
- Lur eremuak salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- 100 m²ko pisua salgai, erreforma behar du.
• **BAZTAN.**
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.
• **NARBARTE.**
- PROMOZIO BERRIA: 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai. Informa zaitez!

**948 451 841 / 948580705**
**www.ados-inmobiliaria.com**

**ANZABAL**
*Santiago 15 - ELIZONDO*
*Tfnoa: 948 580804*
*anzabal@anzabal.com*

**BAZTAN-BIDASOA**
Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.
**BAZTAN-BIDASOA**
Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

**BULDAIN INMOBILIARIA**
LEKUNBERRIn eraiki behar diren 40 etxebizitza salgai. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, garaje-plaza, trasteroa, igogailua.
✆ **948 510 534 bulegoa**


### ETXEBIZITZAK
### 101 Salgai

**LEITZA.** Pisua salgai Amazabal kalean. 100 m², trastelekua, igogailua, eguzkitsua. ☎ 699 461365.

### ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisua errentan ematen da. Mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎ 626 774582 (arratsaldez).

### ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**BERA** edo inguruan pisu ttikia errentan hartuko nuke, garaje ttiki batekin. ☎ 629 971838.

**BORTZIRIAK.** Baserri edo etxea errentan hartuko nuke. ☎ 665 756377.

### GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**LEITZA.** Gaztañaga tabernatraspasatzen da. 120.000 euro. Erraztasunak ematen dira. ☎ 699 361194.

### GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak gordetzeko. ☎ 948 630881.

**SUNBILLA.** Bustitz ostatua errentan eman nahi da, igerilekuaren ondoan. ☎ 948 450504.

### GARAJEAK/LOKALAK
### 110 Errentan hartu

**BAZTAN** edo inguruan aziendak gordetzeko borda edo koadra errentan hartuko nuke. Belagiak ere hartuko nituzke. ☎ 649 368803.

### LANA
### 301 Eskariak

**Emakume euskaldun** bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko (zaharrak zaintzeko, garbiketarako, zaharrekin gaua pasatzeko…). ☎ 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**BERA.** Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko edo haurrak edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta informeekin. ☎ 654 027179.

**Gizon** batek edozein lanegine nuke. Ostalaritzan eta sukaldean esperientzia duena. ☎ 627 387079.

**Gizon** batek edozein lanegine nuke, eraikuntzan, ostalaritzan, garbiketan, baserrian, adinekoak zaintzen…. ☎ 660 149953-948 637599.

**28 urteko neska**, esperientziarekin, umeak zaintzeko eskaintzen da Elizondo eta Doneztebe inguruetan. ☎ 607 443903 (Ainhoa).

### LANA
### 302 Eskaintzak

**BERA.** Ibardingo Benta Miguelen jendea behar da lan ezberdinetan aritzeko. ☎ 948 631394.

**SUNBILLA.** Kanpinean sukaldaria behar da, 13:00etatik 16:00etara eta 19:30etatik 22:30etara. ☎ 948 450540 edo 618 521032.

**BERA.** Ostatu-jatetxe batean ortzegunetik igandera lan egiteko sukaldaria behar da, plater konbinatuak eta me-


**Lan bila zabiltza?**

**LAN ESKAINTZA**
**LANGILEAK**
Obrak, gidariak, zaborra, garbitasuna, Udaletxetarako behar dira.
**PEOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA**
- Igeltseroak
- Elektrizistak
- Iturginak Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00

**LAN ESKAINTZA**
**GARBITZAILEAK**
Lanpostu finkoak:
- Eraikin publikoak
- Ikastetxeak
- Ospitalak
Soldata: 900 € Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00
**SUKALDE LAGUNTZAILEA**
- Sukaldariak
- Kamareroak
Lanpostu finkoak
Ordutegia: Betatik 15etara

Presta zaitez. Informazioa dohan.
**948 199 596**

**ADOS INMOBILIARIA**
**DONEZTEBE**
Caja Navarraren ondoan 140 m²ko lokal komertziala salgai.
☎ **948 451 841**

**ADOS INMOBILIARIA**
**BERA**
Altzate kalean, Vasconiaren ondoan, 170 m²ko lokala salgai.
☎ **948 451 841**

**BORDA**
Pladur lanak
Tel-Faxa:
Mug.:
ERREFORMAK
DEKORAZIOA
SABAI MODULARRAK
ISOLAMENDUAK
sua - zarata - hezetasuna

**ROSA BELZUNEGI**
**PSIKOANALISTA**
*Kontsultarako eskatu ordua*
☎ **948 272011** (IRUÑA)
☎ **948 580975**
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

nuak prestatzeko (8 orduko kontratua). ☎ 654 385363.

**OITZ.** Oizko Ostatuan lan egiteko kamarera behar da. ☎ 948 451951.

**ETXALAR.** Etxalarko Bentan barrarako kamareroa behar da. ☎ 948 635000.

**Editorial batek** etxetik lan egiteko 50 kolaboratzaile behar ditu Nafarroan. Informazio zehatza eta doan. 371 Postakutxa, 06800 Merida.

**BERA.** Ansonea jatetxean kamarero bat ostaturako eta sukalderako laguntzailea behar dira. Esperientzia pixka batekin. ☎ 948 631155.

**Mantenimendua.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxetarako lanpostu libreak. 1.600 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak.** Abudo sartzeko unibertsitatetan, udaletxetan. 1.500 €/hilabetean. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Aireportuak.** Bete behar dute: bezeroari arreta, aire kontrolatzaileak, suhiltzaileak. Lanpostu finkoak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Elbarri fsikoak.** %33a baino gehiago baduzu, lortu lanpostu finkoa udaletxetan. Plaza erreserbatuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Harreragileak, telefonistak.** Lanpostu libreak udaletxetan eta Nafarroako Diputazioan. 1.100 €/hilabetean. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak:** Bete behar dute haur zaindari eta hezitzaile lanpostuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596

**Laborategia.** Nafarroako Diputaziorako lanpostu libreak; teknikoak, laguntzaileak, sanitarioak, kimikoak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**TALLERES SANTESTEBAN**
✆ 948 450282 • DONEZTEBE
**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)**
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR
**ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK**
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO...
ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

**Sukaldariak, sukalde laguntzailea.** Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Asteburuak libre. 1600 €/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak, txoferrak.** Abudo sartzeko udaletxetan, Nafarroako Diputazioan. 1800 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

## MOTORRA
## 501 Salerosketak

**Suzuki Santana** 1.3 motza salgai, NA-V. 3.000 euro. ☎ 616 170177.

**Citroen Xantia** 1.8i salgai, 5 atekoa. 161.000 km. Egoera onean. 2.700 euro. ☎ 690 629687.

**Renault 19** Chamade autoa salgai. 700 euro. ☎ 639 316337.

**Gas-Gas** markako trial motoa salgai, 1997koa. Hagitz egoera onean dago, kasik erabili gabea. ☎ 649 801997.

**BMW 330** CI beltza salgai, 89.000 km, 2001 urtekoa. 18ko llantak, extra ugarirekin. ☎ 646 587893.

**Jeep Cherokee TD** urdina salgai, 1993 urtekoa. Errekanbio ugarirekin. ☎ 646 587893.

**Jeep Grand Cherokee** 2.5 TD autoa salgai, 1999. urtekoa. Egoera onean. ☎ 667 668504.

**SAMPI ARAGON**
**ZOANSA**
Seat Ibiza TDI (aukeran), Seat Ibiza gasolina, Audi A3 TDI, Audi A3 1.8T, Golf TDI (aukeran), Seat Toledo TDI, Seat Toleo gasolina, Seat Leon (aukeran), Citroen Saxo D, Citroen ZX TD, Citroen Xsara Picasso, Lada Niva (aukeran), Suzuki Vitara gasolina, Mitsubishi Montero 5 ate (2.8 TD eta 2.5 TD)
✆ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Frontera Sport, Peugeot Partner HDI, Galloper 5 ate, Seat Ibiza 5 atekoa, Mazda 2 eta Citroen Evasion 2.0 HDI.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**Renault 19** 1.9 Diesela salgai, egoera onean. ☎ 651 074865.

**Ford Escort** 1.6 autoa salgai, 5 atekoa, NA-0868-W, 1998koa, 1.000 eurokoa. ☎ 687 738201.

**Seat Toledo GL** salgai, gasolinakoa. Egoera oso onean. 1.200 euro. ☎ 677 368296.

**Citroen Berlingo 1900** autoa salgai, bi plazakoa, lanerako prestatua. ☎ 618 264676.

## ANIMALIAK
## 601 Emateko

**Dalmata** zakur ar bat opari ematen da. 3 urtekoa. ☎ 686 4437953.

**Lau hilabeteko zakurkume** emea oparitzen da. Txuria eta artzain zakurra eta collie nahasketa. ☎ 637 990197.

## ANIMALIAK
## 602 Salerosketak

**Bi ahari**, 3 urtekoak salgai. Adardunak, mutur horiak. ☎ 948 615045 (21:00etatik aurrera).

## DENETARIK
## 701 Galdu-aurkituak

**ELIZONDO.** Artzai zakur gaztea, 2 urtekoa, ile luzea, 2 lepoko koloredunekin galdu da. ☎ 948 580230 edo 948 580619.

**ARIZKUN**
Ordoki industri eremuan
**NABE BERRIAK**
Nahi diren m²-ak

**ADOS INMOBILIARIA**
948 451841 Doneztebe
948 580705 Elizondo

**GURIA INMOBILIARIA**
649 805974 Irun

**IGANTZIko HERRIKO ETXEA**

**2006KO DENBORALDIAK IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU LANAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA**

- **Gaia:** 2006ko denboraldian igerilekuen mantenimendu, garbiketa eta funtzionamendu lanen adjudikazioa.
- **Hasierako prezioa:** 1.000,00 euro, BEZa barne denboraldi osoa.
- **Eskaerak aurkezteko epe berria:** 2006ko apirilaren 12ko eguerdiko 12ak arte.

Igantzi, 2006ko martxoaren 21ean
ALKATEA, Jesus Maria Begino Garro

## DENETARIK
## 702 Salerosketak

**Ezindu edo elbarriendako tresnak** salgai: ospitaleko ohe elektrikoa (90 cm.), garabi edo grua elektrikoa, bainurako aulkia, eta gurpil-aulki elektrikoa «Samba» markakoa. ☎ 620 208645.

**Solarium-a**, pelukeriko materiala eta muebleak salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 670 218232 edo 652 746800.

**Teila** zaharrak erosten ditut. ☎ 686 983377.

**Egongelako mobleak** salgai, egoera onean. ☎ 635 702343.

**Belarra** bolatan eta **lastoa** tokonetan salgai. ☎ 948 631098 (arratsetan).

**Fagor** markako labea eta gasa salgai. ☎ 948 450841.

## DENETARIK
## 703 Bertzelakoak

**Golden Retriever** pedigridun zakur ar txuria badut, emeren bat ernaltzeko. ☎ 686 983377.

## HARREMANAK
## 801 Agurrak

**Kaixo.** 33 urteko mutiko batek 25-35 urteko neska bilatzen du harreman zintzo baterako. ☎ 605 753445. Muxutxue neskak ta animatu.

# ttipi-ttapa

## urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,29€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.info



**Aizea Aioroa Apeztegia** ittundarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 6an. Lau muxu handi «sorgina» Ainara eta Ekineren partetik.



**Xabier Goizueta Balezteña**k apirilaren 9an 2 urte beteko ditu. Zorionak ttikitto eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Maiana Altzuguren Goia** beratarrak 4 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak gure printzesari eta lau muxu pottolo Josu eta Xubanen partetik.



**Sara La Torre Goia** beratarrak apirilaren 3an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta egun on pasa, familia guziaren partetik.



**Irune** eta **Itxaso Elizagoien Bizente** etxalartarrek 13 eta 11 urte beteko dituzte martxoaren 29an eta apirilaren 4an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**Gurutze Andueza** eta **Haitz Telletxea** beratarrek apirilaren 7 eta 28an 17 eta 3 urte beteko dituzte. Aunitz urtez etxekoen partetik.



Aurtizko **Xabier Goizueta Baleztena**k 2 urte beteko ditu apirilaren 9an. Zorionak eta aunitz urtez Ekiñeren partetik. Ongi pasa motorista.



**Ane Agirre Otxotekok** 2 urte bete ditu martxoaren 14-an. Zorionak eta muxu bat gure potxolari familiaren eta bereziki Josebaren partetik.



**Xabi Bengotxea Rekarte** doneztebarrak 6 urte bete ditu martxoaren 27an. Zorionak aita, ama eta arreba Joanaren partetik. Ongi pasa futbolaria!



Aurtizko **Ekiñe Mindegia**k 8 urte beteko ditu apirilaren 2an. Muxu aunitz printzesa familiaren partetik eta ongi pasa eguna.



Iruñeko **Julen Sanz Serrano**k 14 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak aita, ama eta Elizondo eta Berako familiaren partetik.



**Juan Fran** eta **Beñat** aitasemeek urteak beteko dituzte apirilaren 5ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Asier Telletxea Apeztegia** beratarrak martxoaren 30ean 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat famili guziaren partetik eta berexiki Andoniren partetik.



Leitzeko Goiko Soroako **Joxe Miguel** eta **Pakita**k apirilaren 4an elkarrekin 61 urte beteko dituzte. Jarraitu dezatela orain arteko umore eta sasoi bikainarekin. Familia guztiaren partetik musu handi bana.



Leitzako **Elsa Ceballos**ek urteak bete ditu martxoaren 28an. Zorionak Nerea eta familiaren partetik. Muxu asko eta urte askotarako.



Leitzako **Domingo Zubillaga**k urteak bete ditu martxoaren 25ean. Zorionak familiaren eta bereziki Nerearen partetik. Prestatu txanpaina.



**Janire Martin Goia**k 6 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak amatxi Pili eta Berako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Martxoaren 27an **Luis Mari**k urteak bete ditu. Zorionak Izar Txokotik. Muxu haundi bat.



**Martin** eta **Ina**. Zorionak eta muxu haundi bat Etxalar eta Berako familiaren partetik.



**Naroa** eta **Oihane Zugarramurdi Zubieta** goizuetarrek urteak bete dituzte martxoaren 12an eta 23an. Zorionak eta muxu haundi bana zuren familiaren partetik, batez ere Oieren partetik.



**Ibon Irastorza Urdanitz** beratarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak gure artzaiari Katti, atta eta amaren partetik.



**Jon Mazizior**ek 12 urte bete ditu martxoaren 28an. Zorionak Lesakako aitatxi eta amatxiren partetik.



**Juan Mazizior**ek martxoaren 21ean urteak bete ditu. Zorionak seme-alaba eta iloben partetik.



**Paola Oskoz Mazizior**ek 11 urte bete ditu martxoaren 24an. Zorionak Lesakako aitatxi eta amatxiren partetik.



Martxoan **Juan, Jon** eta **Paola**k urteak beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik.



**Janire Martin Goia**k 6 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak Lesakako familia eta bereziki Naiararen partetik.



**Ainara Otxoteko Larrartek** 7 urte beteko ditu apirilaren 8an. Zorionak bere familia eta bereziki Aimaren partetik.



**Ganix** eta **Oihana Arruti**k apirilaren 5ean eta 7an urteak beteko dituzte. Zorionak mattiak! Muxu goxo bat gure piratarentzat eta sorgintxoarentzat, amatxi, atatxi, atta eta amatxoren partetik.



**Saioa Mariezkurrena Zubieta**k 2 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak eta 2 muxu haundi atta, ama eta Nicolasaren partetik.



**Saioa Mariezkurrena Zubieta**k 2 urte bete ditu martxoaren 22an. Bi muxu haundi Mertxe, Haritz eta Ainhoaren partetik. Zorionak Xagu!!



**Aizea Aioroa** ittundarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 6an. Zorionak gure sorgintxoari, segi orain bezain gitana. Muxu haundi bat etxekoen partetik.



**Andoni Mindegia Etxepare** iturendarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak Lesakako izeba eta osabaren partetik. Bi muxu haundi.



**Ane Pacheco San Julian:** apirilaren 2an 7 urte beteko dituzu. muxu haundi bat Ainara, attatto eta amaren partetik.



**Virginia Goienetxe Gonzalez** lesakarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak eta muxu aunitz gurasoen eta Nataliaren partetik.



**Xabier Urrutia Telletxea**k 4 urte bete ditu martxoaren 29an. Aunitz urtez Eider, atta, ama eta Elordiko familiaren partetik.



**Ugaitz Larralde Ibarra** beratarrak 7 urte egingen ditu apirilaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat ipurdian Izaroren partetik.



«Ibarrako guindillak» diren **Ireber** eta bere aita **Ramon**ek apirilaren 16 eta 22an urteak beteko dituzte. Zorionak bioi!!!Jose, ixeba Noe, amatxi, atatxi eta amaren partetik.


vegasa®
SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA
Modelo berriak: rustikoak, modernoak eta praktikoak
Entzimerak, silestone, granito, corian...
Etxetresna nazionalak eta alemanak
PROIEKTU eta ERREFORMAK
AMAIVR
Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • ☎ 948 450400
BISITA EZAZU


zer da ttipi-ttaparen telefono gida?
zenbat balio du gidan anuntzio bat sartzea?
nola dago antolatua?
bertan azaltzeko zer egin behar da?
2006
Telefono gida
Inguru honetako etxe guzti-guztietan sartuko den Telefono Gidan,
Ofiziale, saltoki eta lantegi guzti-guztiekin batera agertzeko
Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatua
Urte osoan eta momentu guzietan zure bezeroak kontsultatzeko erraxa
Zure iragarkia sartzeko aukera eta tarifa desberdinak dituen Gidan
Baztan · Bertizarana · Bortziriak · Leitzaldea · Malerreka · Urdazuri
...azalpen eta informazio gehiago: 948 635 458 telefonoan


Lur
diskoteka
www.lurelizondo.com
apirilak 01 larunbata
10€ +kontsumizioa
01:00
JOSEINA ETXEBERRIA
apirilak 08 larunbata
8€ +kontsumizioa
01:00
DISKOTEKA
SMSak, BIDEOAK, GIROA, MUSIKA...
apirilak 15 larunbata
8€ +kontsumizioa
01:00
LURDJOTAK
AD7
DJNASH DJAK SEXYGOGO'S...
apirilak 22 larunbata
8€ +kontsumizioa
01:00
SEMAFORO BESTA
apirilak 29 larunbata
8€ +kontsumizioa
01:00
DISKOTEKA
SMSak, BIDEOAK, GIROA, MUSIKA...
Elizondo (Nafarroa)